



ELKAR MUGI

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Munduan 2,5 milioi pertsona daude esklerosi anizkoitzarekin diagnostikatuta. Espainiar estatuan 47.000 pertsona, eta Nafarroan 700 bat. Nafarroako Esklerosi Anizkoitza Elkarteak esklerosi anizkoitza pairatzen duten pertsonak eta beraien senideak laguntzen ditu, baita sentsibilizazio eta ikusgarritasun lana egin ere. Bertan Kattalin Armendariz hiriberriarra fisioterapeuta da.

Maiatzaren 30a Esklerosi Anizkoitzaren Nazioarteko Eguna da, eta atzo, elkartean, egun garrantzitsua izan zen Kabiberri mustu zutelako. "Elkartea handiagoa egin da, gero eta erabiltzaile gehiago daudelako eta beste espazioa txiki gelditu zen", azaldu du Armendarizek. Aurtengo Nazioarteko Egunaren gaia diagnostikoa da; kanpainaren izena *Nire Esklerosi Anizkoitza Diagnostikoa* da, eta *Esklerosi anizkoitza elkarrekin nabigatzen* da leloa. Altsasun ere Esklerosi Anizkoitzaren Eguna modu berezian ospatuko da aurten: gaur eta bihar Elkar Mugi jaialdia antolatu dute elkartea laguntzeko. Armendariz bertan izango da, "ea eguraldiak laguntzen digun!".

Zer da esklerosi anizkoitza?

Gaixotasun neurodegeneratibo bat da. Horrek esan nahi du oraindik sendabiderik ez duela. Gertatzen dena da nerbio sistemako sustantzia txuria suntsitzen dela, burmuinean eta bizkarmuinean. Sustantzia txuriak nerbio seinalea azkartu egiten du; eta zer gertatzen da suntsitzen denean? Seinale hori mantsoago iristen dela iritsi behar den tokira edo bidean galtzen dela. Beraz, funtzio batzuk galtzen dira. Mugi-kortasuna izan daiteke, beste batzuk memoria arazoak dituzte...

Zeintzuk dira lehenengo sintomak?

Esklerosi anizkoitza famatua da mila aurpegi izateagatik; mila aurpegi dituen gaixotasuna esaten zaio. Manifestatzeko era desberdinak ditu, eta bakoitzari modu batera eragiten dio. Gehienek esaten dute bista arazoak izaten dituztela; horrela hasten

"Elkarteari ikusgarritasuna ematen lagun dakioke"

KATTALIN ARMENDARIZ FISIOTERAPEUTA FISIOTERAPEUTA

Hiriberriarrak Nafarroako Esklerosi Anizkoitza elkarteko fisioterapeuta da. Ikusgarritasuna ez ezik, elkartek "baliabideak" behar dituela esan du



Kattalin Armendariz Nafarroako EM elkarteko fisioterapeuta. UTZITAKOA

da. Batzuk lauso ikusten dute, beste batzuek bikoitza, bertigoak dituzte... Eta beste hainbat hasten dira muskulaturan ahultasun bat izaten. Adibidez, kaletik joa-

ten dira eta hasieran erresistentzia ongi mantentzen dute, baina bat-batean estropezu egiten dute eta pentsatzen dute: "Zer gertatzen ari zait..."

Zein da gaixotasunaren jatorria? Nola hasten da?

Pentsatzen da genetikoki predisposizio bat izan behar dela. Hau da, generen bat izan daitekeela. Baina batzuk predisposizio hori dute, eta ez dute gaixotasuna garatzen. Horrek esan nahi du ere inguruneak zeresana duela. Gaixotasun autoimmunea da, hau da, immunitate sistemak zelulak kaltetzen ditu bereak ez direnak detektatzen dituelako, orduan zelulen suntsipen bat gertatzen da eta nerbio sistemak ez du berriz errekupeatzeko gaitasuna.

Zein adinekin gertatzen da? Zein da batzuek besteko adina?

Izan dezakegu paziente bat 20 urterekin eta beste bat 78 urterekin. Baina 20 eta 40 urte tarte horretan diagnostikatzen da. Egia da ere badirela kasuak urte gehiagorekin edo gutxiagorekin garatzen hasten direnak. Gehienak emakumeak dira, %80.

Behin diagnostikatuta, zeintzuk dira jarraibideak?

Lehenengo gauza medikazioa jartzea da; botikak. Bi mota daude: progresiboa eta broteak. Pro-

gresiboa botikek egiten dutena da progresio hori mantsotu, eta broteetan helburua da horiek gelditu edo, behintzat, gehiago ez gertatzen saiatzea. Oso garrantzitsua da, fisikoki eragiten duenez, fisioterapia. Diagnostikatzen dutenean ere dolu prozesu bat badago, gehienek esaten dute bizitza gelditzen dela. Noski, esaten dizute gaixotasun bat duzula, neurodegeneratiboa dela eta ez dela inoiz sendatuko, eta horrek badu eragina buruan. Orduan, dolu prozesu bat pasatzen da eta batzuek laguntza behar izaten dute eta beste batzuek ez. Hemen, elkartean, psikologia departamentua dago; bai beraien dako bai familiarendako eta ingururendako.

Nola laguntzen du fisioterapiak?

Bizi kalitatean laguntzen dugu, beraien egunerokotasuna ez gelditzeko lan egiten dugu. Guk ezin dugu galdu dena errekupeatu, baina gelditu dena hobetu dezakegu; erresistentzia eta indarra entrenatzen dugu. Gaixotasuna ez duten pertsonak bezala entrenatzen dugu, gainera. Egia da gaitasun batzuk galdu dituztela, baina beste gaitasun batzuk badituzte, eta hori dena potentziatu egiten dugu. Gero gertatzen da ere broteak izaten dituztela, eta gaitasun horiek hobetu badituzte, ez da hainbeste galduko brotearen ondoren, eta errekupeatzeko ere errazago izango da.

Zein momentutan dago ikerketa?

Espainiako Elkarte arduratzen da ikerketaz, eta bere web orrian ikerketaren nondik norakoak azaltzen ditu. Esaten dute hemendik hamar urtera gutxi gorabehera gaixotasuna kontrolatuta egongo dela, baina ezin da jakin. Horretarako ikerketekin jarraitzeko eta ikerketak egiteko baliabideak behar dira.

Nolakoa da zure lan egun bat?

08:00etan hasten naiz lanean eta ordu horretarako, badago jendea entrenamenduak egiten dituen. Profil desberdinak ditugunez, lehenengo balorazio bat egiten da: nola egin duen lo, zer gertatzen zaion, zer defizit edo zailtasun



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



dituen eta abar, eta horren arabera entrenamendua diseinatzeko. Indarra eta erresistentzia lantzen ditugu; postura, eta egunerokotasunean laguntzaren bat behar badu, oinez ibiltzeko, adibidez, makilak edo makuluak edo behar dituen frogatzen eta entrenatzen dugu.

Emaitzak ikusten dituzue?

Bai, egunerokotasunean ikusten ditut. Saioak ez ezik, etxean ere ariketak egin behar dituzte. Kontuan izan behar dute beraiek daukaten nekearen pertzepzioa. Oso nekatuta baldin badaude, ez dituzte hainbeste errepikapen egin behar edo egun batean ez badute egiten, ez da ezer gertatzen. Udan, tenperatura altuekin, gaizki pasatzen dute; oso nekatuta egoten dira eta horrek ere eragiten du. Tratamenduaren ondorioz batzuk albo efektuak izaten dituzte eta nabaritzen dira ere. Gaixotzen badira ere sasi broteak deitzen dena izan ohi dituzte; baina sasi brotea gainditzenean berreskuratzen dute. Kostatzen da, baina errekupekatzen dute.

Zer nolako botikak hartzen dituzte?

Bakoitzak berea du, eta nik dakidanez, diagnostiko bat ematen dietenean beraiei uzten diete zer botika hartu erabakitzen. Informatzen zaie nola funtzionatzen duen eta nola eragiten duen eta beraiek erabakitzen dute. Gerta daiteke aukeratzen dutenak ez funtzionatzea eta aldatu behar izatea, horregatik hasieran neurologoarekin kontaktu gehiago edo handiagoa dute. Batzuk gaixotasunak sortzen dituen ondorioak gutxitzeko botikak hartzen dituzte. Adibidez, batzuk espasmitizitatea dute, gaixotasunaren ondorio bat, eta horretarako ere botikak errezetatzen dizkiete.

Exoeskeletoak ere bizi kalitatean hobe dezake; zer da exoeskeletoa?

Exoeskeletoa tresna edo gailu bat da. Konpentsaziorik gabe edo postura egokian oinez ibiltzen laguntzen die. Saioa fisioterapeuta batek gidatzen du eta hiru ordu laurden inguru irauten du. Beraiegan eragina du, baina egia da exoeskeletoa erabiltzeari uzten badiogu, efektu horiek ez direla mantentzen. Lan egiteko modu asko ditu: erresistentzia landu daiteke, saioa mantsago egin... Landu nahi duzunaren arabera parametroak programatzen ditugu.

Tresna eraginkorra da, ezta?

Bai. Psikologikoki ere baditu bere ondorioak. Badago duela 15 urte ibiltzeari utzi zion jendea, eta laguntzen die. Argi izan behar dute galdu duten funtzio horiek ez direla berreskuratzen; hobetzen dira. Pertsona horiekin asko lantzen duguna postura da; eserita egoteko, konpentsazioengatik edo giharretan ez direnez ongi mantentzen minak izaten dituzte, eta horiek gutxitzeko lan egiten dugu.

Esklerosi anizkoitzarekin estigma handia dago. Zer egin daiteke horri aurre egiteko?

Ikusgarritasuna eman, batez ere. Gizartearen hezkuntza ere garrantzitsua da. Esklerosia entzuten dutenean orain, ez dakit zergatik, ELAren erlazioan da, eta ez da gaixotasun berdina. Niri ere gertatzen zait kalean esaten dudanean elkarte honetan lan egiten dudala jendeak esaten didala: Joe, ze gogorra! Oso gogorra izan behar da! Bai eta ez. Azaltzen diezu denak ez daudela gurpildun aulki batean eta badagoela jendea oso ongi dagoena. Elkartean badugu jendea esklerosia diagnostikatuta dutenak



Esklerosi Anizkoitza elkartean fisioterapia ariketak egiten. UTZITAKOA

eta *crossfit* egiten dutenak, lana... Iritzi bat eman baino lehen informazioa behar dugu. Hori batez ere. Eta galderaren bat edo baldin badute, dakien pertsona bati galdetzeko. Gaixotasuna duten pertsonei galdetu aurretik, aditu bati galdetu. Batzuetan galdetzeko oso modu txarrak egoten dira, eta horrek beraiei animoan eragin dezake. Badago diagnostikatutako jendea ezer esaten ez duena ez duelako azalpenik eman nahi, eta hori ere errespetatu behar da.

Zer egiten du elkarteak?

Prozesu guztia kontatuko dut: pertsona bat diagnostikatzen

gutenean batzuk etortzen dira eta beste batzuk ez dute nahi. Kanean bakarrik entzuten da: hor bakarrik dramak entzungo dituzu! Hori ez da egia. Oso argi gera dadila ez dela egia. Orduan, harrera prozesu bat egiten da. Hona etortzean harrera prozesua egiten zaio. Elkartearen zerbitzuak azaltzen zaizkio: gizarte langilea dago; fisioterapia zerbitzua; neuropsikologia zerbitzua, kognitiboki gaizki daudenak edo memoria arazoak dituztenek beraiekin lan egiten dute; psikologia, eta terapia okupazionala, besteak beste. Balorazio desberdinak egiten zaizkie eta fisikoki

behar dutela ikusten badugu, fisioterapia egiteko zitatzen ditugu. Psikologoak ikusten badu dolu prozesu batean dagoela, eskaintzen zaio edo azaltzen zaio zergatik uste dugun ongi etorriko zaiola. Beraiei erabakitzen uzten diegu. Horrek ere prozesu bat behar du. Ez da berdina duela 15 urte diagnostikatu zuten pertsona baten pentsatzeko modua edo diagnostikatu berri duten pertsona batena.

Nola lagun dakioke elkarteari?

Baliabideekin eta ikusgarritasuna ematen. Lehen esan dugun dramaren irudi hori desagertu dadin.

Zergatik lan egiten duzu esklerosi anizkoitza dutenekin?

Niri beti gustatu izan zait neurologia. Betidanik. Orain dela bi urte lanik gabe gelditu nintzen eta elkartean elkarriketa egiteko aukera izan nuen. Aurreko urteko urtariletik nago hemen lanean eta oso gustuko dut, oso gustura nago. Neurologiaren mundua gustuko dut, eta hemen nago; momentuz ez naiz joango. Egia esan pentsatzen nuen ez nindutela hartuko, neurologian espezialitaterik ez dudalako, baina zortea izan nuen. Aurretik Ubarminen eta San Juan de Diosen iktusa izan duten pertsonekin esperientzia nuen.

Zein da lan honen berezitasuna?

Lan taldean egiten dugu lan. Ez da bakarrik fisioterapeuta bat paziente batekin. Astero-astero fisioterapeuta guztiek bilera bat egiten dugu bakoitzaren prozesua nola doan jakiteko eta gero talde osoak ere, gizarte langileak, terapeuta okupazionalak, psikologoak eta abarrek ere astean behin bilera bat egiten dugu. Dena koordinatuta eta bide beretik joateko.

Ikusgarritasunerako, jaialdia

Iker Baxerriri esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten. "Nik hau daukat eta elkarte bat dago, laguntzen diguna, eta laguntza behar duena". Laguntzeko modu bat pentsatu zuen: "Hitx egingo dut lan egin dudana musika talde batzuekin, badiarelako taldeak duela ia hogeit urte ezagutzen ditudala". Hasiera batean ideia zen lau edo bost taldeko gau bat egitea; lau talderi "begira hau egitea pentsatu dut" esan zien, baietz esan zuten, "eta ez dakit benetan zer gertatu zen", bi eguneko jaialdi bat bihurtu zen: Elkar Mugi elkartean jaial-

dia. Helburua elkarteari ikusgarritasuna ematea da, eta jaialdiko sare sozialetan ere gaixotasunaren inguruko informazioa zabaldu dute. Elkartean jaialdiarekin "flapatzen" ari direla esan du altsasuarrak.

Gaur eta bihar, maiatzak 31 eta ekainak 1, ospatuko da elkartean jaialdia, Zelandin, eta hainbat rock taldek parte hartuko dute: Segis, Talco, Kaotiko, Tropa do Carallo, Dinamita, Sofokaos, The Lio eta Muga Zero taldeek lehenengo egunean, eta Rotten XIII, Non Serviumen ikuskizun berezia, Unidad Alave-

sa, Brigade Loco, Crim, Hell Beer Boys, Nafarroa 1512, Añube, Public Enemy eta Garratz taldeak bigarren egunean ariko dira. Altsasuko kaleetatik ere Elektrokela Elektroxaranga ariko da. Kanpoan utzi behar izan dituen taldeak daudela aitortu du Baxerriri, "ez zegoelako leku fisikorik".

Elkar Mugin auzolana eta herri mailako inplikazioa ere garrantzitsua izan da: "Junerekin kafe bat hartzen nengoen eta egin nahi nuena komentatu nion; auzolanean egingo bagenu zer iruditzen zitzaion galdetu nion, eta baietz esan zuen". Beste hainbat eragilerik ere elkartean jaialdiaren ideien berri eman zien, eta laguntzeko prest agertu ziren;

Jimmy Jazz Gasteizko aretoko arduradunak, HFMN, Entzun, Partisano, Muberwear, MusikazePro eta Musika Zuzenean.

Elkartean jaialdia antolatzeke bilerak urte hasieran hasi ziren. Abenduan sarrerak salgai jarri zituzten, eta oso denbora gutxian hasiera batean jarritakoak agortu ziren. Edukiera handitu zuten, eta sarrera berriak ere azkar batean saldu ziren. Elkartea laguntzeko 0 lara sarrerak eros daitezke, eta jaialdiaren kamisetak salgai egongo dira ere. Astelehenean hasi ziren jaialdiaren eremua muntaketarekin. "Dena plan kronologiko batean antolatuta dago". Orain bakarrik "eguraldi ona" egitea espero du Baxerriri.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Ama izatea ez da zaila, zaila...

Martxoa emakumeon hilabetea bezala hartu ohi da, eta maiatza? Emakumeon osasun hilabetea dela esan daiteke.

Maiatzaren 1a, langileon eguna izateaz gain, AMAREN OSASUN MENTALAREN MUNDUKO EGUNA da. Kasualitatea? Langileon eguna eta amen osasun mentala egun berean izatea ez zait hain kasualitatea iruditzen. Ama izan naizenetik nire osasun mentalean eragina izan duela argi dago, are gehiago, ama eta langilea naizenetik.

Askotan gurpilaren barruan dagoen arratoia naizenaren sentsazioa dut, ez dudala nahikoa egiten, korrika alde batetik bestera eta inoiz ez gara iristen. Nora? Ez dakit, baina inoiz ez da nahikoa. Norentzat? Ez dakit ere ez. Niregatik izango balitz ez nintzateke horrela ibiliko. Orduan...

Ametsetan (amets gaiztoetan, hobeto) korrika egin nahian bezala, ez aurrera ez atzera. Pasa al zaizue noizbait? Ziur nago baietz.

Geroz eta ohikoagoa da, baina ohikoa izateagatik ez da normalizatu behar, parkean gaudela antsietateaz,

AMA IZATEA EZ DA ZAILA. ZAILA, AMA ZAREN BITARTEAN BESTE GUZTIA EGITEA ETA IZATEA DA

depresioaz, estresaz jota dauden amen konfidentziak jasotzea. Askok ez zuten bere burua hain gaizki ikusten, beste batzuk soka apurtzearen zain zeuden eta ez die ezustean harrapatu...

Ama izatea ez da zaila.

Zaila, ama zaren bitartean beste guztia egitea eta izatea da.

Ez da guk ez dugula ama bezala funtzionatzen, ama garen sistema baizik. Laguntzarik gabe, baliabiderik gabe, lagunik gabe, profesional espezializaturik gabe, erantzunkidetasunik gabe, baimen duinik gabe. Hori guztia gabe, ezin dugu. Hori guztia gabe, egunerokoa bizirauteko borroka bihurtzen da, gure osasun mentalaren kontu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Elkartasun ZAPOREAK

OLAZTIKO GAZTE ASANBLADA (O.G.A)

Urteroko legez, herriko gazteak etxez-etxe ibili ohi ziren Eguberri bezperan janari eske, egunean bertan gazte bazkaria egiteko. Urteak ziren bilketa egiten ez zela eta Gazte Asanbladatik elkartasun janari bilketa egitea adostu genuen, bilketaren funtsa elkartasuna izanik. Hortaz, asanblada batean ZAPOREAK elkarte proposatu zen, elkarte horri bildutako janari guztia emateko.

ZAPOREAK elkarte Europa iristen diren errefuxiatuei janari duina eskaintzen dien irabazi asmo gabeko elkarte da. Egun, Grezian dauden errefuxiatu esparruetan janaria prestatzen

dute harrapatuta dauden pertsona zaurgarrien bizi baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Behin elkarte zein izango zen argituta, haiekin lehen kontaktua eginda eta Eguberri bezpera gainean izanda, janari bilketa ilbeltzaren bigarren asteburura atzeratzea adostu genuen. Larunbat goizean herritar talde txiki bat bildu ginen eta etxez-etxe aritu ginen janari eskean. Igandean aldiz, frontoian mahai finkoa jarri genuen eta goizean zehar herritar mordoa gerturatu zen jakiak ekartzera. Behin bilketarekin amaituta, gaztetxean jakiak sailkatzen aritu ginen eta bildutakoa asko zela ikusita,

ZAPOREAKekoei esan genien furgoneta beharko zutela gauzak eramateko. Aste baten buruan etorri ziren gauzak biltzera eta harrituta geratu ziren bildutakoa asko zela ikusita.

Maisueneatik oso harro gaude herriak izan duen jarrerarekin eta honek horrelako ekintza gehiago burutzera bultzatzen gaitu. Hortaz, ikasturte berri honetarako, Sakana mailan egun berean elkartasun janari bilketa burutzeko asmoa azaltzen dugu, zeinetarako Gazte Asanblada guztien inplikazioa eskertuko genukeen.

Sakanatik mundura, herri elkartasuna!



OBJEKTIBOTIK

Biziaren festan aurrera

Bizikletaren inguruko ospakizuna hartu zuen Irañetak igandean. 143 parte hartzailek eman zuten izena. Aurrena, Irañeta eta Hiriberri arteko ibilaldi lasaia egin zuten bi gurpilen gainean. Ondoren parte hartzaileen artean zozketak egin zituzten eta auzatea egongo da. Izaskun Mujika ipuin kontalariaren saioa, herri jolasak eta bizikleta konpontzeko tailerrak osatu zuten festaren egitaraua. Parte hartzaileak lagun giro ederraz gozatu zuten.

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Maketatzailea:
Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maidor Gabirondo Zelaia

Kolaboratzailea:
Aimar Pueyo Osinaga
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



guaixe
kide



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Nafarroako Odol emaileen Elkarteko furgoneta Etxarri Aranazko osasun etxearen ondoan aparkatuta. ARTXIBOA

Sakandarren %2,58k eman zuen odola

Autobusean odol ematek, herrietako eraikin publikoak odol emate puntu izatera pasa dira. Aurki herrietan aferesi emateak egiteko aukera izanen da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
Nafarroako Odol Emaileen Elkartek, Adonak, jakinarazi duenez, 532 sakandarrek odola eman zuten joan zen urtean. Haietatik odola estreinakoz eman zutenak 40 izan ziren. Emaile berri horien %42,86k 30 urtetik behera ditu.

Gutxienez behin odola eman zuten sakandarrak ibarreko populazioaren %2,58 ziren. Guztira 924 odol emate egin zituzten. Odol emate gehienak herrietan egin ziren. Baina badira Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko odol bankuan eman zuenik ere.

Herrietako odol emateko moduari aldaketa handia ekarri zion joan zen urteak. Herriz herri ibiltzen zen autobusak, autohemotekak, ez zuen Ibilgailuen Azterketa Teknikoa pasagarilean. Beraz, Adonak hura baztertzea erabaki zuen. Orduan, odol hartza etortzen den erizain eta mediku lantaldea furgoneta batekin joaten da herrietara. Behin herrietan, toki publiko batean prestatzen dute odol emateko behar den guztia: medikuaren kontsulta, ohatilak, makina eta beste. Sakanan, esaterako, odola emateko guneak bihurtu dira Uhartarakil, Lakuntza eta Arbizuko udaletxeak eta Irurtzungo eta Etxarri Aranazko osasun etxeak. Altsasun bi tokitan izaten dira emateak Gure Etxea eraikinaren beheko solairuan eta Intxostiapuntako gimnasioan. Azkenik, Olatzagutian odol emaileak Sutegi gimnasiora joan behar izaten dute.

Aferesia, aurki
Adonako elkarteko idazkari Uxua Garziandia Ojerrek azaldu duenez, "furgoneta erabiltzeak ohiko odola emateko moduz aparte, afere-

sia herrietara eramateko aukera ematen digu. Makina ez zen autobusean sartzen, baina orain furgonetak makina herrietara eramanez, "aferesia emateak egiteko aukera ematen digu". Garziandia azaldu duenez, "aferesia odol emate mota berezia da. Izan ere, makinaren bidez odol ateratzen da, bere osagaiak bereizten dira, beharrezkoak direnak hartzen dira, eta gainerako odol emaileari bueltatzen zaio". Argitu duenez, "odola emateko teknika hori bereziki onuragarria da gaixoendako, beharrezkoak diren osagaiak odol emate arruntetan baino askoz kantitate handiagoan ateratzen direlako, eta gainera, arriskua txikiagoa delako". Garziandia nabarmendu duenez, "emaile berdin-berdin lehengoratzten da". Orain arte aferesi emateak Iruñeko eta Tuterako

odol bankuetan egin zitezkeen bakarrik.

Emaila izateko
Odol dohaintza egin nahi duten pertsonak Adonak herrietan duten delegatuengana joan daiteke informazio eske. Bestela, herrian odol ematea dagoenean zuzenean emateko tokira joan eta bere nahia azal dezake. Egutegi horren berri adona.es/eu webgunean dago. Odol emaile egin behar duenak aukera du ere Nafarroako Ospitale Gunean odol bankura joateko.
Bai azken horretan bai herrian medikuaren kontsultatik pasako da lehenik. Hark bere osasun egoerari buruzko hainbat galdera egingen dizkio. Eta osasun egoera ona badu eta baldintzak betetzen baditu odol emaile fitxa egingen dio. Odola emateko gutxienezko adina 18 urte dira.

Odol emaileen festa ospatu zen

Etxarri Aranazko odol emaileen ordezkartzaren ospakizuna izan zen igandean. Ekitaldian aitortza egin zitzaion 100 eta 50 odol emate egin dituztenei. Aurreneko kopurura Ignacio Otsagabia Maiz iritsi da. Bigarrenera, berriz, Alfredo Alvaro Igoa, Francisco Javier Asensio Igoa, Luis Goñi Igoa, Margari Goñi Jaka eta Juan Luis Maiza Begiristain. Gainera, odola 25 alditan emateagatik aitortza jaso zuen Juan Jose Mintegi Dorronsorok.
Nafarroako Odol Emaileen Elkartek, Adonak, 465 kide zituen Etxarri Aranatzeko joan zen urtean. Haietatik 106k eman zuten odola, 2022an baino hamar gutxiago. Guztira 167 odol emate izan ziren, guztiak ere ohiko odol emateak izan ziren. 2022an baino 65 odol emate gutxiago izan ziren, ziurrenik autobusa herrira aldi bat gutxiago etorri zelako. Joan zen urtean atzera botatako odol emateak hemezortzi izan ziren, 2022an baino hiru gutxiago. Etxarri Aranatzeko odola eman beharrean beste toki batean eman zutenak 41 izan ziren joan den urtean, 2022an baino 20 gehiago. Azkenik, hiru odol emaile berri egin ziren 2023an, zazpi izan ziren 2022an.



MAIATZAK 27-31

- 10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15** Prentsaren azala
- 10:20** Albisteak eta kirolak
- 10:30** Hizketan
- 11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin
- 14:00** Errepikapena

Hizketan

- Ekainak 3** Mendi lasterketak Sakanan
- Ekainak 4** Altsasuko 3. berdintasun plana
- Ekainak 5** Bertso saioa (Bertsoa.eus)
- Ekainak 6** Ergako kronoigoera
- Ekainak 7** Agenda berezia



Razkinek kondekorazioa jasoko du

Nafarroako Gobernu lege aholkulari Jose Antonio Razquin Lizarragak Justizia Ministerioaren San Raimundo de Peñaforteko Ordenako kondekorazioa jaso du, besteak beste, foru administrazioarendako 30 urte baino gehiago lan egiteagatik

DORRAO

Jose Antonio Razquin Lizarraga legelari dorrobarrak Lehendakaritza, Justizia eta Gortee-kiko Harremanetarako Ministerioaren San Raimundo de Peñaforteko Ordenako 1. Mailako Gurutze Goretsia jasoko du. Razquin duela gutxi erretiratu da, baina 30 urte baino gehiago aritu da Foru Administrazioaren zerbitzura lan egiten. Bere ibilbidean zehar bere gain hartu du Estatuko Administrazio Orokorren eta Foru Komunitatearen arteko Lankidetz Batzordeari aholku ematea edo Estatuaren eta Nafarroaren arteko Transferentzien Batzordean idazkari izatea.

Nafarroako Gobernu aholkulari juridikoe eta Nafarroako Foru Komunitateko Aholkulari Juridiko-Letraduen Elkarte Profesionaleko kideek proposatu zuten Razkine hautagaitza sari hori jasotzeko, eta proposamena Autonomia Erkidegoetako Abokatuen Kontseilu Gorenari helarazi zioten. Dorrobarraren hautagaitzan nabarmendu zuten Razquinengan "Zuzenbidearen ezagutza sakona ez ezik, hura erabiltzeko aparteko gaitasuna ere biltzen duela, bere idazki prozesal zorrotzak eta irizpen juridikoak agerian uzten baiti-



Jose Antonio Razquin Lizarraga. UTZITAKOA

tuzte", eta, gainera, "hori guztia berresten dutela bere lankide aholkulari juridikoe dioten miresmenak eta maitasunak".

Nafarroako Gobernu Aholkularitza Juridikoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren mendeko erakunde publikoak defendatu eta ordezkatzeko dituen epaiketan. Erregelamenduz ematen zaion kontsulta lana ere egiten du.

Ibilbidea

Jose Antonio Razquin Lizarraga Dorraon jaio zen 1955. urtean.

Zuzenbidean lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean 1976an, eta Zuzenbidean doktorea da zentro horretan bertan. Ibilbide profesional luze eta entzutetsua du. Administrazio Orokorreko teknikari gisa hasi zen Bartzelonako Gavá Udalean (1977) eta Gipuzkoako Foru Aldundian (1978-1980), eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzan lehen mailako teknikari goiburua izan zen (1980-1982). Ondoren, Nafarroan finkatu zen. 1982an sartu zen Nafarroako Administrazio Publikoan, lehenik Foru Aldundiko udal

administrazioko teknikari gisa (1982-1984) eta gero Nafarroako Gobernu aholkulari juridiko gisa (1984-2024), 1985 eta 2015 artean Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuko zuzendari eta Zerga Gaietako atalburu gisa (2019-2024).

1986an sortu zenetik 2015era Revista Jurídica de Navarra zuzendu zuen. Nafarroako Kontseiluko kide ere izan zen, 2000. urtean eratu zenetik 2016. urtera arte. Gainera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle izan zen (1992-1996), Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Administrazio Zuzenbideko irakasle elkartua (1988tik 1992ra eta 1999tik 2020ra), Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutako Zuzendaritza eta Kudeaketa Publikoko Masterreko irakasle, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Iruñeko Abokatuen Elkargoak elkarrekin emandako Abokatutza Masterreko irakasle.

Zuzenbidearen munduari lotutako hainbat argitalpen eta txosten idatzi ditu, hala nola "Foruaren Hobekuntzaren Oinarri Juridikoak: Eskubide Historikoak eta Nafarroako Foru Araubidea", "Errepideko Garraioaren Zuzenbide Publikoa". "Ingurumenaren gaineko eraginen ebaluazioa" edo "Ingurumenaren arloko informazioa, parte hartzea eta justizia", besteak beste, nork bere egiletza edo talde egiletza duten beste obra batzuen artean.

1944tik emandako sari bat

Lehendakaritza, Justizia eta Gortee-kiko Harremanetarako Ministerioak banatzen duen sari horren jatorriari dagokionez,

San Raimundo de Peñafort domingotar espainiarra Bartzelonako Penedés eskualdean jaio zen XII. mendearen amaieran, eta zuzenbidezibil eta kanonikoan aditu nabarmena izan zen. Bere izena daramaten kondekorazioak 1944an ezarri ziren, Eduardo Aunós Justizia ministro zela, Justiziaren eremuan meritu profesionalak saritzeko eta Zuzenbidearen arloan izaera zibileko gertaera ospetsuak edo zerbitzu garrantzitsuak saritzeko.

Sariek, hartzailen nazionallekin zein atzerriarrek, Justizia Administrazioko funtzionarioen, eremu horrekin lotura zuzena duten lanbideetako kideen eta Zuzenbidearen garapenean, Kanon eta Eskritura Santuen azterketan eta Estatuaren legegitza eta antolaketa lanean lagundu duten pertsonen lana aitortzen dute. Era berean, garrantzi handiko argitalpen juridikoen egileak eta Zuzenbidearen eta Jurisprudentiaren teknika hobetzea helburu duten erakunde eta instituzioak sortu edo horiekin elkarlanean aritu diren pertsonak bereizten dituzte.

San Raimundo de Peñaforteko Gurutzearen Ordenaren kondekorazioak bi gertakariren inguruan ematen dira aldiari-aldiari: Erregearen Aldarrikapenaren Urteurrena dela eta, garagarri-laren 19an, eta 1978ko Espainiako Konstituzioaren Urteurrena dela eta, abenduaren 6an, Razquin jurista dorrobarrari emandakoaren kasuan.

NAFARROAREN ETA ESTATUAREN ARTEKO TRANSFERENTZIEN BATZORDEAN IDAZKARI IZAN DA

Oinez Basoa eraberrituta

Hainbat lan egin ondoren, Utzubarren 2009an sortutako Oinez Baso eraberritua igandean mustu zuten. Zinta mozketa gaur egun Arbizuko ikastolan dauden ikasleek eta haren sortzaileek egin zuten. Andra Mari Ikastolako LH 6ko ikasleek basoan topa dezakegun altxor ekologikoaren berri eman zuten. Arduradun eta babesleek ere hitza hartu zuten.





Uharte Arakilgo erreka kalearen ikuspegia. ARTXIBOA

Erreka kalea, zirt edo zart

Uharte Arakilgo Udalak kaleko sareak eta zorua berritzeko finantzazio bila lau urte eman ditu. Aurten gaiarekin aurrera edo atzera egin nahi du. Lurpean dagoen erreka kanalizazioak aurrekontua handitu zuen. Beste irtenbideak ere aztertu ditu

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL
Zalantza gehiago, ziurtasunak baino. Horiek dituzte Uharte Arakilgo Udalean Erreka kaleari dagokionean. Herriko Alde Zaharreko kale nagusiko sareak eta zoladura berritzeko lanak egitekoak dira. Udalak lau urte darama hainbat administratzaio-tako ateak jotzen hori lortu ahal izateko. "Aurten aurrera edo atzera egin beharko dugu. Gai hau aurten itxi nahi dugu, heldu den urtean Toki Azpiegitura Planeko dirulaguntza deialdia izanen delako", azaldu du Txomin Uharte Baleztena alkateak.

Iparraldetik hegoaldera, Erdi Aroko zubitik autobus markesinara, herria ardatzen du 325 bat metro luzera duen Erreka kaleak. Kalearen izenak berak adierazten duen moduan, bertatik Itxesi erreka pasatzen da, lurpetik kanalizatuta. "Azaleko"

lurperatzea da. Uharte Arakilgo Udalak Erreka kaleko hornikuntza, saneamendu, euri ur eta zerbitzuen kanalizazio sareen eta zoladura berritzeko proiektua egin eta Toki Azpiegitura Planeko dirulaguntza deialdira aurkeztu zuen egitasmoa 2017an. Baita Nafarroako Gobernuak onartu ere, eta Toki Inbertsio Planean 2021etik jasoa dago lan hori. Lanek 860.000 euro inguruko aurrekontua lukete, eta foru administrazioak 609.859,51 euroko dirulaguntza aurreikusia zuen.

"AZKEN LAU URTEETAN IRTENBIDE BAT BILATZEN AHALEGINDU GARA UDALEKOOK"

Baina aurrekontua motz gelditu zen hiru arrazoiengatik: pandemia, Ukrainako gerra eta egitasmoan erreka kanalizazioa kontuan ez hartzeagatik. "Aurrekontua hirukoiztu egin zen. Ezin genuen kalea berritu,

erreka kanalizazio lanak bakarrik 1,2 milioi euroko aurrekontua zuen, kasik kalea berritzea adina", azaldu du Uhartek. "Azken lau urteak irtenbide bat bilatzen ahalegindu gara", azpimarratu du Uharte Arakilgo alkateak.

Egitasmoa eta irtenbidea

Erreka kaleko ur eta saneamendu sareak 60 urte baino gehiago ditu. Ur hodiak mikrozetmentuzkoak dira eta harguneak berunezkoak. Hainbatetan ur ihesak izaten dira. Egungoen ordez, fundizio hodiak, su-teetarako harguneak eta etxeen parean erregistroak jarri nahi lituzke Uharte Arakilgo Udalak. Saneamendu sarea berritzeko PVCzko hodiak erabiliko lituzkete. Mantentze egokia egiteko putzu gutxi dituenek, gehiago egingen lirateke. Bestetik, euri urak kanalizatutako erreka eramanen lituzkete, bai teilatuetakoa. Argindar, telekomunikazio eta argiteria publikoko lineak etxeetako fatxadetatik lurpeko kanalizazioetara pasako lirateke.

Erreka kanalizazioak ez du sare harguneak kalearen alde batetik bestera pasatzen uzten, eta, geroz, kaleko sareak eta kanalizazioak berritzean bikoiztu egin beharko lirateke, erreka kanalizazioaren alde batetik jarritz.

Kalea berritu ahal izateko irtenbide bila, Uharte Arakilgo Udalak beste irtenbide batzuk ere aztertu ditu. Esaterako, Itxesi erreka Iturbidetik bideratzea Arakil ubeldera. Erreka urak iparraldean, zubiaren ondoan, ibaiarekin bat egin beharrean, herriaren mendebaldean egingen lukete bat, aipatu kaletik. Erreka desbideratuta, haren kanalizazio lanik ez litzateke egin

beharko eta horrek lanak merkatuko lituzke.

Aukera hori gauzatu ahal izateko Ebeko Ur Konfederazioak lurpeko erreka izan dezakeen ur emariaren inguruko ikerketa eginarazi zion udalari. Ikerketa horretan hainbat urte tarreetan zein uholde arriskua izan zitekeen kalkulatu, aurreikusitako beharra zegoen. Emaizak eskutan, erreka desbideratzeko aukera legoke. Baina desbideratzea baino lehenago udalak ekaitz tanga moduko bat egin beharko luke. Lurpeko eraikinak dira ekaitz tangak. Erreka emari oso handia lukeenean, uholde arriskua legokeenean, ura han pilatuko litzateke eta pitteka askatzen joanen litzateke.

Urbanizazioa

Uharte Arakilgo Alde Zaharrean sareak eta zorua berrituko litzatekeen aurreneko kalea litzateke Erreka. Beraz, harako aukeratzeko den urbanizazio eredu herriguneko gainontzeko kaleetara zabalduko litzateke etorkizunean. Esaterako, kale guztiak maila berean egon beharko lukeen, koskadun espaloia egin behar den, ibilgailuen aparkalekuak non eta nola jarri... Bestetik, Erreka kalean daude udal etxeak, eliza, plaza eta zenbait establezimendu. Hori kontuan izanda, udal etxe eta San Joan plazan artean espazio jarrai bat sortzeko aukera aztertu zuen udalak. Kaleko 60 metro inguruko luzera hartuko luke horrek. Espazio hori kalearen gainontzekotik bereizteko zorian material desberdina jar zitekeela kontuan izan zuen udalak.

Udalak Felipe Gorriti, Larrainbide, Itxesi eta Errekabitate karriketan lan egiteko laguntzak ere eskatu izan ditu.

BAKARREKO ETXEA ELKARTEAREN ALOKAIRUA 2024 FESTETAN

Bakarko Bakarreko Etxea elkarteak bi lokal alokatzen ditu uztailaren 24tik 28ra bitarte ospatuko diren festetan. Alokairua lortzeko baldintzak hurrengoak dira:

- Espazio BAKOITZAREN ALOKAIRUA 1.500€koa izanen da.
- Bi lokalak alokatzeko izena emateko EPEA EKAINAREN 15AN bukatuko da. Gutun azalak egunean bertan arratsaldeko 17:00etan irekiko dira, elkartearen zuzendaritzan (bertaratzeko aukera dago).
- Eskaintza elkartearen alean dagoen postontzian sartu beharko da, gutun azal itxi batean hurrengo informazioarekin: Lokala aukera (zulo/elkarte handia), izen abizenak, Telefonoa eta eskainiko diren zerbitzu/ordutegiak.
- Elkartearen bazkideek eta herritarrek edukiko dute lehentasuna.

Zalantzak argitzeko 660 638 738 telefonora edo bidali posta elektronikoa bakarrekotxexa@gmail.com helbidera.

TX
TXARTEL

ZURE BIDALKETAK ESTILOAREKIN PERTSONALIZATU!
Orain gutunazalean zure marka gahitu dezakezu

www.txartel.net

FESTAK



UHARTE ARAKIL Galiziatik etorritako sukaldariak Uhartetik pasa ziren sakandarrei jaten ederki eman zieten.



ETXARRI ARANATZ Euskal festan kantatzeko aukera izan zen eguerdian. Dantzatzeko gauean.



BAKAIKU-ITURMENDI Trinitate festen data aldatetarekin, giroa lagun, larunbatean festa izan zen.



ALTSASU Alde Zaharreko 103 aldamen eseri ziren mahaiaren bueltan auzoko festaren ospakizunetan.



IRURTZUN Txistulariek eta kantariak Barazki gunea doinuak bete zuten.



LAKUNTZA Azokan jendearen etengabeko joan-etorria izan zen.



LAKUNTZA Elai Alaiak bere eguneko kalejira plazan despiditu zuten.

Argiteria publikoa eta eguzki plakak, bidean

LED argiak jartzen ari dira argiteria publikoan eta argindar kontsumoa nabarmen murriztea espero du udalak. Bestalde, eskolak hartu zituen eraikineko teilatuan eguzki plakak jarriko dira. Autobusak aparkatzeko tokiak egokituko ditu udalak

Alfredo Alvaro Igoa BAKAIKU

Bakaikuko Udalak aurten 488.054,03 euroko sarrerak izatea aurreikusi du aurrekontuan. Joan zen urtean baino 23.308,84 euro gutxiago dira. Gastuei dagokienez, berriz, 471.073,67 euro dira, 2023an baino 40.156,15 euro gutxiago. Udal aurrekontuan inbertsioak egiteko 145.499,82 euro daude. Diru sail handiena argiteria publikoan LED argiak jartzeko da. Lanak hasita daude. Batetik, farola buruak aldatu eta txikiago batzuk jartzen ari dira. Bestetik, argindar koadro berria jarriko da. "Horrek aukera ematen du argiaren intentsitatea programatzeko eta ordu jakinetan zenbatekoa izan behar duen zehazteko", azaldu du Egoitz Urritza Lazkoz alkateak. Argiteria publikoa berritzeko lanek 98.688 euroko aurrekontua dute, eta hori finantzatzeko Europatik 116.810 euroko dirulaguntza jaso dute, proiektua barne hartzen duena. Udalaren aurreikuspena da argindar kontsumoa erdira-edo murriztea. Bakaikuko Udalak aurretik LED argiak frontoian jarritu zituen.

Eskolak hartu zituen eraikineko teiladuran eguzki plakak jarriko dituztela jakinarazi du alkateak. Argindarra sortzeko azpiegitura hori jartzeak 11.500 euroko aurrekontua du. Gastu horri aurre egiteko Nafarroako Gobernuaren 6.500 euroko dirulaguntza jaso du Bakaikuko Udalak. Han sortzen den elektrizitatea eraikin berean egonen diren erabilera anitzeko gela eta ludoteka-gazte txokorako izanen da. Eta soberan geratzen dena udalletxean kontsumitzeko bideratuko da. Urritzak jakinarazi duenez, "frontoiko teilatuan ere eguzki plakak jarri nahi ditugu. Handik sortutako elektrizitatea pilotalekurako eta argiteria publikorako litzateke. Dirulaguntzarik badago, aurrerago egingen dugu".



Farola buru berriak aurrekoen itxura bera dute, baina txikiagoak dira.

UDALAREN AURREIKUSPEN DA ARGINDAR KONTSUMOA ERDIRA-EDO MURRIZTEA

Eraikin berean, beheko solairuan, erabilera anitzeko gela altzariekin jantzi eta soinu ekipoa eta proiektorea jartzeko 24.500 euro ditu udalak. Aldamenen egonen den ludoteka-gazte txokoa ere altzariak jarriko ditu udalak. Diru hori Nafarroako Gobernuaren aurrekontutik zuzenean jasoko du Bakaikuko Udalak, EH Bilduk aurkeztu zuen emendakin bati esker hain zuzen ere. Guztia jarri ondoren erabilgarri egonen dira bi espazio horiek. Bitartean, joan zen urtean bezala, erabilera anitzeko gela hautesleku bihurtuko da garagarriaren 9an, Europako hauteskundeak direla eta.

Autobusak eta basoa

Nafarroako Gobernuak ibarretako autobus zerbitzu berria martxan jarri zuen. Herri guztietako markesinen ondoan au-

tobusen ordutegiaren berri ematen zuten zutabeak jarri zituzten. Bakaikun ez. Legearen arabera, espaloian, porlan gainean jarri behar da. Beraz, markesina inguruan espaloia egingen du udalak. Iturmendiko noranzkoan joaten diren autobusak elkarrean parean gelditzen dira. "Autobusak errepidean gelditzen dira. Baina legearen arabera parean espaloia egon behar da. Beraz, iturriaren parean, elkarrean kontra espaloia zabaltu eta handitu egingen dugu. Nafarroako Gobernuak Errepide Zuzendaritzari proposamenak aurkeztu dizkiogu eta ez dakigu lanok aurten egingen ditugun. Ez dute erantzun", gaztigatu du alkateak. Lan horietara 20.000 euro inguru bideratuko ditu udalak.

Herri basoetan, bai barga, bai beheko basoan, bideak edo haien zatiak konpondu, ezpondak garbitu eta bidea jaten ari den landaretza kentzeko lanak egingen ditu Bakaikuko Udalak. Egiteko horiek 48.000 euro inguruko aurrekontua dute, eta 36.000 euroko dirulaguntza du udalak haiek finantzatzeko. Bestalde, Adra biako bidea konpontzea aztertzen ari da udala.

Aurreneko errekonozimendu eta erreparazio ekitaldia

Nafarroako Gobernuak aitortutako biktimen artean daude Mikel Arregi Marin eta Josu Imaz Prim

SAKANA

Ana Ollo Hualde bigarren lehen-dakariorde eta Memoria eta Bizikidetzat kontseilaria buru dela, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekin-tzek eragindako lehen 12 biktimak aitortzeko eta erreparatzeko ekitaldia egin zen Iruñean. Gobernuak "ikuspegi integral batetik, parekatzerik eta diluziorik gabe aurrera egiten du biktima guztien errekonozimenduan eta erreparazioan, beren testuinguru biktimologiko desberdinak kontuan hartuta eta bizikidetzaren eta memoria demokratikoaren aldeko eta bakean oinarritutako gizartearen eraikuntzaren aldeko apustu global eta koherentearen barruan".

Ekitaldian biktimak eta haien familiak parte hartu zuten, baita arlo horretako erakundeek eta elkarrean ordezkariek ere. Gainera, Errekonozimendu eta Erreparazio Batzordeko kideak ere bertan izan ziren, hau da, aldeko txostenak egin zituztenak.

Aitortza jaso dutenen artean dago Mikel Arregi Marin lakuntzarra. Lagunekin herrira bueltan joaten zela haien autoa tirokatu zuten guardia civilek Etxarri eta hil egin zuten 1979ko azaroaren 11n. Josu Imaz Primek ere jaso du aitortza 1981eko abenduaren 17an bomba paketea jaso zuen etxean eta 1983ko maiatzaren 13an autoan bomba jarri zioten. Bietan artezilariek zartarazi zituzten lehergailuak. Andia

mendian jasotako obus bat zartatu eta bost etxarriar hil zituen 1976ko garagarriaren 18an. Eskaera atzera bota dute.

Azpimarra

Nafarroako Torturatuen Sarea eta Egiari Zor fundazioa *Egiaren garaia da. Memoria inklusiboa Nafarroarentzat* ekimenaren izenean, ekitaldiaren garrantzia azpimarratu dute. Adierazi dutenez, "halako erakunde ekitaldi batek indarkeria politikoaren biktimen eremuan dauden desberdintasunak gainditzen laguntzen du. Era berean, garrantzi sinboliko handiko ekintza da ekitaldi hori zuzentzen zaien pertsonendako, haiekiko beskada, hurbiltasuna eta konpromiso instituzionala sentituko dutelakoan gaude".

Esan dutenez, halako ekitaldiek "agerian uzten dute 16/2019 Legearen bidez motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketen biktimei aitortza ofiziala eta erreparazioa emateko prozesua ezinbestekoa dela eta, espero genuen bezala, emaitzak ematen ari dira". Gaineratu duenez, "hasierako mesfidantza gainditzen ere lagunduko duela uste baitugu". Gogorarazi dutenez, "Estatuaren Biktimok ez dugu oroitzapen egunik, eta egokia bezain beharrezkoa dela urraketa berberen aurrean, biktima guztientzat eskubide berberak bermatzea". Ekitaldia urtero errepikatzea espero dute.



Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988



Ikasleak azterketa batean. NUP

Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioa 50 ikaslek egingen dute

Asteartetik asteazkenera egingen dute. Berritasuna da LOMLOEn dauden ikasgaiak sartuko direla

SAKANA

Batxilergotik Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioa guztira 4.036 ikasle nafarrek egingen dute. Matrikulatutako ikasleetatik, 2.377 emakumezkoak dira, eta 1.659 gizonezkoak. Bestalde, hizkuntza ereduari dagokionez, guztira 3.010 ikasle egingen dute gaztelaniaz, eta 1.026k euskaraz. Azken horien artean daude Iruñeko Biurdana Bigarren Hezkuntzako Institutuan ikasi duten sei irurtzundar eta Altsasu Bigarren Hezkuntza Institutuan ikasi duten 44 ikasle. Azken horietako bi ikasle nota igotzeko aurkeztuko

dira Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioan.

Ikasleek garagarriaren 12an izanen dituzte eskuragarri deialdi arrunteko proben emaitzak, eta hilaren 20tik aurrera deskargatzen ahalko dute kalifikazioen txartela. Bestalde, deialdi bereziaren azterketak garagartzaroren 26an, 27an eta 28an izanen dira, eta emaitzak garilaren 2an egonen dira eskuragarri. Kalifikazioen txartela, berriz, garilaren 18tik aurrera egonen da deskargatzeko moduan. Ikastetxeek badute probei buruzko informazio guztia.

DUELA 25 URTE...



Gaita Eguna Etxarrin

Bi helbururekin antolatu zen eguna. Batetik, gaita eta atabal doinuak ezagutarazteko eta, bestetik, Julian Romano gaitaria eta Sakanan izan diren gaitariak omentzea, bereziki, Etxarri Aranazko Karasatorre anaiak eta Fernando Larraza atabalaria. Gaitariak herrian barnako kalejirak egin zituzten goizean. Erraldoiak ere ibili ziren kalejiran, baita Baztango dantzariak gaita doinura dantzatzeko. Sei herrietako gaitari taldeen emanaldiak eta Larrain Dantzak osatu zuten egitaraua.



Salgaiak ikustera hurbildu zen jendea.

Ganbarazelai azokak bigarren edizioa izanen du

Etxean erabiltzen ez direnak bota beharrean saldu edo trukatzeko bulkatzen du, kontsumoa murrizteko

ALTSASU

Jendeak parte hartu zuelako, antolatzaileak "poz-pozik" daude. "Lehen aldia izateko, balorazio oso ona egin dugu. Espero dugu poliki-poliki aurrera jarraitzea". Hala jakinarazi du elkarteak kide Jabi Traperok. Dagoeneko hurrengo Ganbarazelaia data lotuta dute: garagarriak 23, domeka, goizez. Hurrengo hitzorduan jende gehiagok parte hartzea espero dute.

Azokaren helburua da "sankandarren ohitura, edo pentsakera aldatzea. Ezin dugu beti gauzak erosi, erosi eta erosi. Agian bigarren eskuko gauzak eskuratzen hasi behar dugu", azaldu du Traperok. Pentsaera aldatu beharra aldarrikatu du Traperok, "gure gauzak zuzenean salgai jartzea kosta egiten zaigu". Horregatik, bigarren azoka behin eta berriz egin behar dela azpimarratu du. "Jendeak jakinen du hilabeteko azken igandean bigarren eskuko azoka dagoela". Baina garagarrikoa aste bat aurreratu dute, San Pedro festaren biharamunean ez izateko. Aurrez aurreko azokaz aparte, ganbarazelai.org blogaren bidez Internet bidez azoka birtuala sortu nahi dute. Horretarako, 637 947 054 telefonora mezua eta argazkiak bidali daitezke Whatsapp bidez. Jasotakoak blogean eta ekimenaren Facebook eta Instagram kontuetan egonen dira ikusgai.

Aurrenekoaz

Proiektuak elkarte antolatzaileko kideek Ganbarazelai bigarren

eskuko azokan hiru postu mota aurreikusi zituzten. Alde batetik, profesionalak, "bigarren eskuko gauzak saltzea ogibide dutenak". Halako hiru postu izan ziren Ganbarazelaian, Altsasura propio etorritako saltzaileak izan ziren salmenta mahai horien atzean. Bestetik, hainbat sakanadar izan ziren Proiektuak elkarrekin harremanetan jarri zirenak. Haiek emandakoak salgai jarri zituzten elkartekideek. "Gauza dezente lortu genituen", azaldu du Traperok. Arropak eta altzariak jarri zituzten salgai. Azkenik, herritarren salmahaiak zeuden. Arbizuar batek eta bi altsasuarrek jarri zituzten beraien postuak eta beraien gauzak zuzenean saldu zituzten.

Elikagaien aprobetxamendua sustatzeko espazioa ere bada Ganbarazelai sustatu duen Proiektuak elkartearen helburuetako bat. Horretarako, pintxo-pote jasagarria eskaini zuen Proiektuak elkartek. Oraingoan paella eskaini zuten, arrainen hezurrekin eta barazkiekin egin. Giro aparta izan zuten akaberran Adriana Olmedok eskainitako kontzertuarekin. Gainera Victoria Monedero pailazoak bere emanaldia egin zuen.

HURRENGOA ASTE BAT AURRERATU DUTE, SAN PEDRO FESTAREN BIHARAMUNEAN EZ IZATEKO

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Altsasuko Udalak hirugarrenez emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko politikak planifikatu ditu.

Zer da berdintasun plan bat?

Tresna moduko bat da. Tresna hori emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun politikak sistematizatzeko eta antolatzeko dugun baliabide onenatarikoa da. Bertan lehenetsun batzuk ezartzen ditugu eta lehenetsun horiek garatzeko behar diren neurriak zehazten dira. Neurri horiek garatzeko arduradunak izendatzen dira eta zein epetan egin behar diren eta abar zehazten dugu. Azken finean, plana gure lana antolatzen eta zehazten duen tresna bat da.

Zein aldi hartzen du planak?

Plan hau 2024tik 2027ra bitartekoa. Lau urteko epea izango du, hori izaten da normalean gomendatzen diguten epea. Beraz, horrela egin du.

Hirugarrena da, aurrekoaren zein balorazio egin duzue?

Bai, bai. Azkenekoaren balorazioa egin genuen. Orokorrean, esan genezake oso balorazio positiboa jaso dugula. Aurreko plana nahiko fokalizatuta izan zen bere baitan, zehazten zituen ekintzetan, eta ia-ia ekintza gehienak egin izan ziren. Horrekin nahiko pozik. Gainera, oso plan errealista eta egingarria izan zen. Balorazio oso positiboa da.

Zertan asmatu zen aurrekoarekin?

Esan bezala plan nahiko fokalizatuta izan zen, batez ere, udal barruko jardunari erreparatu zion. Esate baterako, aipa genitzake: udalak onartutako Berdintasunerako Ordenantza; udal langileen egoera aztertzeke egin dako ikerketa egin zen, ondoren barne berdintasun plan bat sortzeko; Sakanako Mankomunitatearen Berdintasun Zerbitzuarekin batera ibarreko lehenengo lurralde protokoloa diseinatu eta garatzea; indarkeria matxistaren bueltan herritarrekin sensibilizazio kanpainak egin dira eta ikastetxeetan berdintasuna lantzeko programak abiatu dira.

Eta zertan ez zen asmatu?

Gauza asko egin ziren eta ildo ia-ia guztiak garatu ziren. Baina emakumezkoen ahalguntzeari buruzko ildoan egiteko geratu zitzaigun emakumezkoen ahalguntze indibiduala eta kolektiboa sustatzeko programa bat. Baina beste arlo guztietan dezente egin da, bai.



Altsasuko Udaleko Berdintasun Batzordeko zinegotziak eta teknikaria. Erdian, Amaia. UTZITAKOA

"Modu parte hartzaile batean antolatu dugu prozesu guztia"

AMAIA ABUCIDE AYLAGAS EMAKUMEA ETA BERDINTASUNA BATZORDEKO BURUA Altsasu berdinzaleagoa izan dadin pausoak egiten jarraitzeko, III. Berdintasunerako Plana onartu zuen Altsasuko Udalak maiatzaren 29ko bilkuran

Egiteko hori plan berrian jaso duzue?

Balorazio horretan hainbat kontu identifikatu ditugu, haien artean hori. Plana egiteko prozesuaren baitan bost jarduera ildo adostu eta zehaztu ditugu. Horri Nafarroako Berdintasun Institutuak (NABI) irizpideak gehituta antolatu dugu III. Berdintasunerako Plan hau.

Bost ildotatik lehena zein da?

Lehenengoa tokiko gobernantza eta genero-zeharlerrotasuna da. Ulertzeko, udal jarduera edo arlo administratiboa hartzen du. Udal

ordezkari eta teknikariek jarraituko dugu prestakuntzan sakontzen, udal aurrekontuetan genero ikuspuntua txertatzen, bai dirulaguntzetan txertatu ahal diren klausulekin eta abarrekin sakontzen. Azken batean, udalaren egunerokotasunean genero ikuspuntua txertatzean datza.

Bigarrena, zein?

Indarkeria matxistarik gabeko herria izena du. Esan bezala, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuarekin batera, lehenengo lurralde proto-

koloa lantzen jarraituko dugu. Batetik, protokoloaren baitan dauden profesional zein zerbitzuen prestakuntzan sakontzen eta jarraitzen, eta haien arteko koordinazioa hobetzen. Azken batean, emakumezkoen arreta hobea eskaintzeko helburua du. Herri-tarrek inbertsionizazio kanpainak sustatzen ere ariko gara.

Eta hirugarren ildo zein da?

Zaintzak eta bizitzak politika publikoen erdigunean. Altsasun zaintzen inguruko zer-nolako zerbitzuak dauzkagun jakiteko

diagnosia egingo dugu. Baita zerbitzu horietan dauden langileen egoera zein den jakiteko ere.

Bostetik laugarrena, zein ildo da?

Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoa. Azkenean hori jaso dugu aurreko plan horretatik. Beraz, bai, buru-belarri jarriko gara emakumezkoen ahalduntze indibidual zein kolektiboa sustatzeko programa bat garatzeko.

Atzeneko ildo zein da?

Herri berdinzalea. Bertan daude, esaterako, ikastetxeekin dauzkagun hezkidetzak egitasmoak, horiekin aurrera jarraitzea. Edo Altsasuko emakumezkoen egin dituzten ekarpenen aitortza egitea. Hori ikertzeko eta lantzeko beka bat eskaintzea aurreikusten dugu. Bekari forma eman beharko diogu eta ikusiko dugu zer-nolako beka moldatzen dugun herriari hobekien moldatzeko.

NABIk markatzen du plana?

Nafarroako Berdintasun Institutuak lehen lau ildoak markatzen dituzte batez ere. Baina bosgarren bat sartu nahi genuen, aurreko planetan ere sartu izan dena. Azken batean, agian, barne biltzen ditu kanpoan gelditu ziren gauza batzuk. Beraz, bosgarren ildo horretan behar duten garrantzia eta lekua eman nahi izan diegu.

Horrelako plan bat nola egiten da?

Prozesu luzea baino nahiko konplexua da. Tresna bat den heinean asko hobetsi izan dugu, batez ere herritarrekin eta jendearekin batera egitea. Modu parte hartzaile batean antolatu dugu prozesu guztia: bai aurreko planaren balorazioa bai honetan jaso ditugun ekarpenak eta hausnarketak. Lan saio batzuk egin ditugu. Guretako oso garrantzitsua da ekarpen horiek jasotzea, plana herriarendako diseinatu dagoelako, eta herriaren beharrei erantzun behar zaielako.

Zer moduzko parte hartzea izan da?

Uste dut ia 50 pertsona batu gara plana prozesu honetan. Deialdi irekiak planteatu ditugu, baina, azken batean, badakigu bakoitzak egunerokotasunean zer-nolako zailtasunak dauzkagun deialdi horietara agertzeko. Baina, bai, baliatu ditugula Altsasun bertan dauden talde naturalak edo jada sortuta daudenak. Eta haiei esker, eta bide batez, eskerrak eman ere, batez ere migratutako emakumeei, Altsasuko mugimendu feministari eta herritarrei. Ekarpenak oso baliagarriak izan dira eta haien plana ere izan delako.


Kronologia

- **1992-11** Altsasuko Udalak Berdintasun Zerbitzua sortzea erabaki zuen.
- **1993-01-28** Altsasuko Udalak Emakumeen Bilgunea aurkeztu zuen. Hiru hilabeteko probaldia zen.
- **2008-04-07** Udalak Emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasunerako Altsasuko aurreneko plana onartu zuen, 2008-2011 aldirako.
- **2012** Aurreko planaren ebaluazioa egin zen.
- **2016-07-27** Udalak II. Berdintasun Plana onartu zuen.
- **2019-10-30** Udal bilkurak erabaki zuen planaren indarraldia 2023ra arte luzatzea, planean jasotako hainbat jardura ez baitziren egin.
- **2023-02-01** II. Berdintasun Planaren ebaluazioa aurkeztu zen.
- **2023-10-17** Berdintasun Planaren parte hartze prozesuko aurreneko lan saioa. Beste bost egin ziren ondoren.
- **2024-05-29** Udalak III. Berdintasunerako Plana onartu zuen.

Parte hartzea sartzeko modua da?


Prozesua bera baliatu dugula harreman horiek egiteko, zaintzeko eta sustatzeko. Azken batean eragile horiekin elkartzeak eta gauzak partekatzean sare bat sortzen du eta Berdintasun Sailarekiko beste harreman bat izatea ekartzen du eta horrekin oso pozik gaude. Plana onartua dago, baina, hala ere, ez da lana edo ez da parte hartzea bukatu. Hemendik aurrera bai jarraipenean, bai ebaluazioan, bai bestelakoetan, haiek kontuan izanen ditugu, edozein momenturako. Haiek kontuan izanen ditugu. Azken finean plan hau tresna bat da, baina tresna bizi bat da, aldaketekin, hobekuntzarekin. Esan bezala, parte hartzea ezinbestekoa da eta horren bitartez garatuko dugu plana.

Izan giltzarri!



Ane Martija Ollakarizketa





Abeslaria

Kaixo,

Ane Martija naiz eta ni bezala Sakanan gertatzen diren gauza guztietaz informatuta egon nahi baduzu, egin zaitez Guaixe Fundazioko bazkide.

Izan giltzarri!



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 31

ALTSASU Areto futbola.

Futsal txapelketa, Korazonistak ikastetxeak antolatuta. LHko 5. eta 6. eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleendako.

15:00etatik aurrera, Korazonistak ikastetxean.

ALTSASU Jaialdia.

Elkar Mugi Nafarroako Esklerosi Anizkoitza elkartearen aldeko elkartasun jaialdia: Segis, Talco, Kaotiko, Tropa do Carallo, Dinamita, Sofokaos, The Lio eta Muga Zero taldeak. Sarrerak agortuta.
17:00etatik aurrera, Zelandin.

ALTSASU Saskibaloia.

3x3 Saskibaloia Txapelketa, Korazonistak ikastetxeak antolatuta. LHko eta DBHko ikasleendako.

18:00etatik 20:00etara,
Korazonistak ikastetxean.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Gure bidea eginez Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako dantza ikasleen ikasturte amaierako euskal dantzen emanaldia: lehenengo atalean euskal dantza tradizionalak eta bigarren euskal urratsetan oinarritutako koreografia berriak. Sarrerak: euro bat.

19:00etan, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Ettera Azken ostirala elkarretaratzea.
19:30ean, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Kontzentrazioa.

Ettera Azken ostirala elkarretaratzea.
20:00etan, kale nagusiaren 7. zenbakiaren aurrean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Nina gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

Igandea 2: 19:30
Astelehena 3: 19:00

Ooh la la! gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

Osteguna 6: 19:00

ARBIZU Kontzentrazioa.

Ettera Azken ostirala elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ

Kontzentrazioa.

Ettera Azken ostirala elkarretaratzea.
20:00etan, plaza.

LARUNBATA 1

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Lizarraga, 51 kilometroko ibilbidea.
08:30ean, Zumalakarregi plazatik.

ITURMENDI Eguna.

Sakana Parapente Eguna, Baiza taldeak antolatuta.

Baiza taldeko kanpan.

09:00 Izena ematea.

10:30 Lehenengo igoera.

13:00 Hamaiketakoa.

20:00 Afari merienda.

Egunean zehar, biplazak, materiala eta simuladorea probatzeko aukera.

IRURTZUN Munduko Arrozak.

Munduko Arrozak ekimena, Kulturen arteko elkartasun zikloaren barruan.
10:00etatik aurrera, Foru plazan.

LAKUNTZA Kintada Eguna.

Kintada Eguna, 84ko kintoek antolatuta.


13:30 Auzatea eta photocall-a, Pikotan.

13:30-14:30 DJ Oixani.

19:00-23:00 DJ Oixani.

20:00 Auzatea eta photocall-a, Pikotan.

20:30 Sorpresa.



ALTSASU Koldo Arnanz arte tailerreko ikasleek 2023-2024 ikasturtean egindako lanen erakusketa. Maiatzaren 31tik ekainaren 15era arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

ALTSASU Jaialdia.

Elkar Mugi Nafarroako Esklerosi Anizkoitza elkartearen aldeko elkartasun jaialdia: Rotten XIII, Non Serviumen ikuskizun berezia, Unidad Alavesa, Brigade Loco, Crim, Hell Beer Boys, Nafarroa 1512, Añube, Pubic Enemy eta Garraz taldeak. Sarrerak agortuta.
Atea 15:00etan ate irekiera eta lehen kontzertua 15:45ean, Zelandin.

IGANDEA 2

ETXARRI ARANATZ Mendi

irteera.

Larrañeta elkartearen mendi irteera: Azkentzale eguna.

09:00etan, Larrañeta elkartean.

IRURTZUN Azoka.

Lore eta Landare Azoka, Irurtzungo Udalak eta Sojo naturak antolatuta.

10:00etatik 14:30era, Foru plazan.

ETXARRI ARANATZ Dantzari

Txiki Eguna.

Etzarriko Dantzari Txiki Eguna: Aguraingo Jeiki, Irurtzungo Orritz eta Etorkizuna dantza taldeekin, Etorkizuna Dantza Taldeak antolatuta.

11:00 Dantzarien, musikarien eta begiraleen topaketa eta gosaria, plazan.

12:00 Kalejira, herrian zehar. Dantzatzeo geldialdiak eginen dituzte.

13:30 Dantza saioa, plazan.

*Eguraldi txarrarekin, frontoian.

UHARTE ARAKIL Korpus Eguna.

Meza Nagusiaren bukaeran ohiturazko prozesioa santutegiko aldare nagusitik Trinitateko basilizaraino. Han bedeinkapena egin

BAZKIDE ZOZKETA
Maiatzeko saridunak

1. SARIA
Ainhua Iparragirre Mendia (Altsasu)

2. eta 3. SARIAK
Ricardo Goikoetxea Gorriti (Uharde Arakil)
Mari Jose Aierbe Ostiza (Urdiain)
Nerea Lizarraga Berastegi (Arbizu)

ZORION AGURRAK



Aurelia

Zorionak zure 100. urtebetetzean, ama eta amona, mende bateko bizitza ospatzea ohorea eta bedeinkapena da. Eskerrik asko zure irakaspen guztiengatik, zure maitasunagatik eta eredu izateagatik, asko maite zaitugu.



Er  **iti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona
eta prezio ezin hobea

ondoren, elizara itzuliko da. Prozesioaren aurretik gurutzea eta San Migelen irudia joango da.

12:30ean, Aralarko santutegian.

ASTELEHENA 3

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. **12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

ALTSASU Hitzaldia.

Mutuas: ¿Nos llevan hacia un doble sistema sanitario? Hitzaldia Iñaki Moreno Lan Medikuntzan adituarekin. Nafarroako Osasun Plataformak antolatuta. **18:00etan, Iortia kultur gunean.**

ASTEAZKENA 5

ALTSASU Tailerra.

Irakurkide txakurrekin irakurketa tailerra Anfas elkarteke kideendako. **16:00etan, Biak Baten egoitzan.**

OLATZAGUTIA Hitzaldia.

Literatura como compromiso social Mikel Sanz eta Manu Martorellekin. Iruñeko IV. Liburuaren Azokaren harira antolatutako Bi ahotsetara programaren barruan. **19:00etan, liburutegian.**

OSTEGUNA 6

IRURTZUN Hitzaldia.

Recreación guiada de la historia o libre imaginación de quien lee la novela Susana Iraizoz eta Jon Aramendiarekin, Iruñeko IV. Liburuaren Azokaren harira antolatutako Bi ahotsetara programaren barruan. **19:00etan, liburutegian.**

OSTIRALA 7

ALTSASU Tailerra.

Emakumeendako kirol tailerra: Indar tailerra. Nafarroako Kirol eta Jarduera Fisikoko institutuak eta Altsasuko Udalak antolatuta. **17:00etatik 19:00etara, Zelandi kiroldegian.**

ZIORDIA Tailerra.

Gutunak birramamari Yolanda Arrieta idazlearekin familia lantegia: Asaren istorioa bitarteko delarik, bizitzaren oinarriko gaiez mintzatzeko eta idazteko (jaiotzaz, bizitzaz eta heriotzaz) tailerra antolatu du Sakanako Mankomunitateak. LHko 3. mailatik gorako ume eta gurasoendako. Izena ematea: euskara1@sakana-mank.eus edo ziordialib@gmail.com. Bertaratutakoek liburua jasoko dute opari. **18:00etatik 20:00etara, liburutegian.**

HIRIBERRI Garagardo Dastaketa.

Xorta Pirinioetako garagardoa proiektuaren azalpena eta dastaketa. **18:30ean, elkartean.**

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Etorrizunari so Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako dantza ikasle handien ikasturte amaierako dantzen emanaldia: euskal dantzaren oinarriak hartutako koreografia berriak. Sarrerak: euro bat. **19:00etan, Iortia kultur gunean.**

OLATZAGUTIA Irakurle taldea.

Irakurle taldea: Chimamanda Ngozi Adichie idazlearen *La flor púrpura* liburuaren ingurua ariko dira. **19:00etan, liburutegian.**

LAKUNTZA Jaialdia.

Biltoket: Jon Maraka, Aline Mrk, Morti eta Garate disko jartzaileen saioa. **23:00etan, Biltoki gaztetxean.**

OROIGARRIA



Yasone Ortega Delgado

V. urteurrena

Ettxekoek; Mikel senarrak, Dulantzi eta Johanes, Eguzki seme-alabek, Alai ilobak, Amaia ahizpak eta Pakok ez zaitugu ahazten.

Lakuntza



Juan Ignacio Erdozia Larraza Fidel Larraza Marin Felipe Ceberio Maiza Fco.Javier Guruzeaga Etxarri Jose Antonio Goñi Jaca

Beti gukin

Etxarri Aranazko 1953ko kintuek

JAIO TZAK

- **Lur Goikoetxea Olmedillo**, maiatzaren 23an Altsasun
- **Youssef Najmi**, maiatzaren 25ean Etxarri Aranatzen

EZKONTZAK

- **Maria Luisa Carrillo Roas eta Rafael Navarro Perez**, maiatzaren 24an Irurtzunen

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Ergoienako Udalak gizarte eta kultura animatzaile bat kontratatuko du: Ekainetik urrira lan egiteko lanaldi erdiko kontratuarekin, C mailakoa. Izen ematea Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Altsasun duen bulegoaren bitartez egin behar da, ealsasua@navarra.es emailera curriculumak bidaliz.

Lakuntzako Udalak begiraleak kontratatu nahi ditu udako aisialdi eskaintzarako: Begirale izan nahi duenak ekainaren 11ra arte du epea eskabidea aurkezteko. Horrekin batera curriculumak, jolasgunearen antolaketa eta ekintza proposamenarekin aurkeztu behar dira. Informazio gehiago www.lakuntza.eus web orrian.

Olaztikoko iragilekuetarako hiru langile behar dira: Atezaintza eta garbiketa lanak egiteko hiru hilabetez lanaldi osoko kontratuarekin. Interesa duenak enplegu eskatzaila

le gisa inskribaturik eta Euskara maila B2 izatea eskatzen da. Deialdiari buruzko informazio guztia www.olazti.com web orrian.

Lakuntzako Udalak igerilekuko taberna alokairuan hartzeko aukera: Tabernaren kudeaketa hartzen duenak eguneko sarrearen salmenta baita sarbidearen kontrola ere bere gain hartu behar ditu. Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 3an amaitzen da. Deialdiari buruzko informazio gehiago udalarekin edo www.lakuntza.eus web orrian.

Lakuntzako Udalak igerilekuko sorosleak eta garbitzaileak kontratatuko ditu: Kontratazioak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu. Interesa baduzu inskribatu zaitez, ekainaren 3a baino lehen Altsasuko enplegu-bulegoan, 948 562 754 telefonon edo <https://empleocitaprevia.navarra.es/webgunean>.

Arakilgo Udalak aisialdiko begiraleen lan

poltsa osatu nahi du: Eskabideak eta Curriculumak ekainaren 12ra arte aurkeztu daitezke. Deialdiari buruzko informazio gehiago nahi duenak udalarekin pasadadila edota arakilkultura@gmail.com helbidera idatzi dezala, edo 634 584 226 – 948 500 101 telefonon edo 948 464 036 telefonon.

IKASTAROAK

Surf ikastaroa Zarautzen Sakanako Mankomunitatearen eskutik: Ikastaroa ekainaren 15ean eta 16an izango da, autobus zerbitzua egongo da. Hastapen ikastaroa da. Izena eman nahi duenak Mank-eko kirol zerbitzura dei dezala 948 464 866.

Sakanako Mankomunitateko udako kirol campusetan izena ematea zabalik: Futbol campusa Uharte Arakilen izango da bi txandatan: 2012,2013 eta 2014 urteetan jaiotako neska mutikoenentzat ekainaren 25etik 29ra bitartean eta 2009, 2010

eta 2011 urteetan jaiotakoentzat uztailaren 1etik 5era, bi txandak goizeko 10:00etatik 13:00etara ordutegiarekin. Prezioa 35 eurokoa izango da *kirolak@sakana-mank.eus* helbidera idatziz edo 683 343 854 telefonon deituz. Triatloi campusa uztailaren 8tik 19ra izango da, Arbizuko kiroldegian, 10:00etatik 12:30era. Honen prezioa 40 euro izango da eta izena emateko epea uztailaren 2an amaitzen da.

Gazteendako graffiti tailerra Uharte Arakilen: Ekainaren 7an izango da 17:00etatik 20:00etara, Iker Uriberen eskutik. Izen ematea ekainaren 5era arte udalarekin edo 948 464 036 telefonon.

OHARRAK

Gurutze Gorriak Altsasuko Otadia aterpetxean laguntzeko boluntarioak behar ditu: Errefuxiatuei gaztelaniazko klaseak emateko astean behin edo bitan eta hurrekin jolas jarduerak egiteko. Astean bitan litzateke, uztaila eta

abuztuaren Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzeko 617 351 603 telefonon dei dezala edo aterpetik pasadadila.

Uharte Arakilen haurrendako udako ludotekan izen ematea zabalik: Uztailaren 1etik 24ra izango da, 9:00etatik 13:00etara. Kostua 200 eurokoa izango da (izena ematen duten haurren arabera alda daiteke). Izena ematea Uharte Arakilgo Udalarekin edo 948 464 036 telefonon deituz.

Haurrendako udako kanpamenduan izen ematea zabalik: Garagarrilaren 24tik garailaren 26ra izanen da, 9:30tik 13:30era. Izen ematea garagarrilaren 12ra arte eman daiteke www.lakuntza.eus web orrian.

Arbizuko pilota eskola: izena emateko epea zabalik dago ekainaren 7ra arte, izena udalarekin bertan eman daiteke.

Arakilgo euskalkiari buruzko liburu eskuragarri: Aitor Aranek eta Koldo Colomok idatzitako

Nafarroako Euskalkiak. Arakilgo aldaera liburuaren ale batzuk ditu Arakilgo Udalak eta doan emanen dizkio interesaduenari, horretarako 634 584 226 telefonon dei dezala.

Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak zure ahotza behar du: 6 – 15 urte bitarteko haurrez osatuta dago abesbatza eta kide berrien bila dabil. Interesa duenak harremanetan jar dadila corotxikis@gmail.com helbidera idatziz. Informazio gehiago www.coraldebarriaranaz.com web orrian.

Baduzu zerbait konpontzeko? Ekarki garbigunera eta konpontzen saiatuko gara. Altsasuko garbigunean ekaineko asteazkenetan eta Arbizuko garbigunean, gaur, maiatzaren 31n eta ekaineko ostiralean, bietan 11:00etatik 13:00era. Mankomunitateak eskeinitako zerbitzua.

iragarki@guaxe.es
www.iragarkilaburak.es

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
✉ @Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

Irurtzungo Txapelketarekin, denboraldia akabo

PILOTA XXXII. Irurtzun Pilota Txapelketako finaletan txapelek Irurtzundik ihes egin zuten, baina txapelketa ongi joan delako pozik dago Irurtzungo arduradun Miguel Beraza. Denboraldi zaila izan dute, baina Ohorezko Mailari eutsi diote

Maider Betelu Ganboa IRURTZUN
Maiatzaren 25ean XXXII. Irurtzungo Pilota Txapelketako final handiak jokatu ziren Biaizpe pilotalekuan. Txapelketa Nafarroako afizionatuen mailako txapelketarik garrantzitsuenetakoa da, Nafarroako Euskal Pilota Federazioak antolatzen dituen txapelketa ofizialen atzetik. Aurtengo txapelketan lehen mailan 24 bikote inguru lehiatu dira, eta bigarren mailan 14 bikote, Nafarroako onenak. "Txapelketaren atzean lan handia dago, egia esan. Baina kontentu gaude, partidak ikustera jende asko joan delako eta txapelketa osoan barna giro ederra egon delako, finalean bereziki. Finalera 200 pilotazaletik gora hurbildu ziren, eta oso pozik gaude" azaldu du Irurtzungo Pilota klubeko arduradun Miguel Beraza Loidik. Bezperan, Zabaletaren eta Martijaren omenaldia izan zuten. "Asteburuan topera ibili ginen".

Tanto bakarrarengatik

Irurtzunek jokatu ziren bi finaletan ordezkariak izan zuten, baina, tamalez, txapelek ihes egin zuten. Bigarren mailako finalean Lapke klubeko Otxoak eta Erlek 6 eta 22 hartu zituzten mendean Irurtzungo Bustince eta Salgado.



XXXII. Irurtzun Pilota Txapelketako finalistak, klubeko pilotariekin. UTZITAKOA

Lapkekoak hasieratik nagusitu ziren eta Irurtzungoei ez zieten aukera zipitzirik eman. Aldiz, lehen mailako finala oso-oso estua izan zen. Fernandezek eta Aizpuruk (Soraluze-Aurrera Tolosa), batetik, eta Olaetxeak eta Cuairanek (Irurtzun), bestetik, sekulako ikuskizuna eskaini zuten. "Final borrokatua izan zen, oso polita, edozein bikoren alde erori zitekeena; aurpegia ala gurutzea, eta azkenean urdinen aldera erori zen" azpimarratu du Berazak. 22-21 gailendu ziren Fernandez eta Aizpuru.

Ohorezko Mailari eutsi

Irurtzungo Pilota Txapelketaren ondotik, merezitako atsedena hartuko dute Irurtzun klubeko pilotariekin. "Herrien Arteko Txapelketa jokatzeko ari gara, baina, bestela, txapelketa ofizialen egutegia bukatu da. Aurten ez dugu denboraldi ona pasatu, lesioak eta bestelakoak tarteko, baina Ohorezko Mailako kategoriari eutsi diogu, eta pilotariak aurrera ateratzeko borrokan jarraituko dugu. Denboraldi berria prestatzen hasiko gara aurki" nabarmendu du Berazak.



Zabaleta eta Martija, Irurtzungo pilotariekin egindako pasillotik pasatzen.

Zabaletari eta Martijari aitortza

Irurtzungo Trinitateko festen barruan Aspek pilota jaialdi profesionala antolatu zuen aurreko ostiralean, eta Irurtzun Pilota klubak aukera hori probestu nahi izan zuen bere klubean trebatutako pilotaria, Jose Javier Zabaleta etxarrendarra, omentzeko. Azkenean, omenaldia Julen Martija etxeberriarrari ere zabaldu zitzaion eta bi arakildarrek frontoia leporaino bete zuten irurtzundarren eta arakildarren txaloak jaso zituzten, omenaldi xume bezain sentituan. Lehenik eta behin Irurtzun klubeko pilotariekin pasilloa egin zieten, eta Irurtzungo dantzarien aurrekuaren ondoren, bi omenduek udal ordezkarien eskuetatik zapiak jaso zituzten, beste oroigarriekin batera.

Pilota partidari dagokionez, Peio Etxeberriak eta Martijak 17 eta 22 hartu zituzten mendean Elezkano eta Zabaleta, lehi oso estuan.

Aurten, maila guztiak kontuan hartuta, 60 pilotari inguru trebatu dira Irurtzunen. "Beteranoak oso ongi prestatuta daude eta oraindik soka luzea dute, eta pilotari gazteak baditugu: Olaetxea, Murgiondo, Azpiroz, Lizarraga, Salcedo, Bustince... gainera, bizpahiru berri etorriko dira datorren denboraldian. Badirudi oraindik ere pilotariekin gurera etorri nahi dutela" dio.

Irurtzun klubean "topera" jarraitzen dute. "Antolakuntza handia eta ordu asko sartzea, horiek dira klubaren martxa

oneko arrazoi nagusiak. Gaur egun, jendeak ez ditu aparteko ardurak hartu nahi, eta kosta egiten da, baina aurrera goaz". Pilotari gutxiago daude, orohar: "Jaiotza gutxiago daude, kirol eskaintza handia, mugikorrak... ez da erraza, pilota kirol oso gogorra delako, indibiduala". Hala ere, Irurtzun klubean pilotariak aurrera ateratzen jarraitzen dute, meritu handiz. "Egun, Gipuzkoa Nafarroa baino koska pare bat gainera dago, bai pilotarien kopuruari eta baita pilotarien mailari dagokionez".

Aste gorabeheratsua futbol sakandarrean

FUTBOLA Altsasu Preferente mailatik jaitsi da, eta Etxarrik, irain arrazistak salatuta, ez daki igoera fasean segiko duen

Bi albiste serio izan ditugu egunotan. Batetik, Altsasu futbol taldeak Preferente maila galdu du, liga hamalagarren postuan bukatuta (43 puntu), hamahirugarren salbazio postutik 2 puntu eskasera. Kolpea latza izan da

Altsasu Kirol Elkartearendako eta pena handia da. 2021/2022 urtean lortu zuen Altsasuk Preferentera igotzea, 30 urte erreregionalean jokatu eta gero, baina pozak gutxi iraun du, bi denboraldi eskas. Datorren denboral-

dian Altsasuk Erregionalean jokatu du, Lagun Artearekin.

Etxarri, albisterik gabe

Etxarri Aranatzek Erregional mailako igoera faseko itzulerako partida jokatu zuen larunbatean Beriainen kontra. Lehen zatia bukatzerakoan, eta Etxarri 2-0 gailduen ari zela, zalaparta sortu zen aldageletako tunelean. Etxarri Aranazko jokalariek eta stafak bere jokalariei bati egindako irain arrazistak salatuta zituzten, eta bere jokalariekin elkartu-

sunez, bigarren zatian ez ateratzea erabaki zuten. Hala jakinarazi zioten arbitroari, baina hark partidako aktan ez zuen halakorik jaso. Gertakariak Foruzaintan salatu zituen Etxarrik. Halaber, Nafarroako Futbol Federazioari arrazakeriaren kontrako protokoloa zein den galdetu zioten, eta "protokoloak badaude, klubei eta batez ere arbitraje-estamentuari azaltzeko; Iker Murrugarren Soria arbitroak, federazioko kide batek eta arbitroko kolegioko beste ordezkari batek,

gertatutakoaz eta gure jokalariek jasotako irainez behar bezala abisatuta, ez zutelako inolako jarduketa protokolorik martxan jarri". Bere aldetik, Beriainek Etxarri Aranatzek egindako irain arrazisten salaketa ukatu du.

Guaixeko erredakzioa istera-koan oraindik ez genekien Etxarri igoera fasean jarraituko duen -berez, hala dagokio-, hala federazioak bestelako zigor neurririk hartuko duen, Etxarri ez baita asteburuko partidaren seinalamenduetan azaltzen.



Jose Antonio Imaz Prim, ezkerrean, Barranka Txirrindulari Taldeko kideekin. BARRANKA T.T.

"Haritzen ibilbidea, Bernoa galtzada eta Auntzetxe. Zoragarria"

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM BARRANKA TXIRRINDULARITZA TALDEA

MENDI TXIRRINDULARITZA / BTT Ekainaren 9an abiatuko den 27. Altsasu BTT Zeharkaldiak ibilbide ederra du. Ekainaren 6ra arte eman daiteke izena

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Ekainaren 9an 9:00etan abiatuko da 27. Altsasu BTT Zeharkaldia, Barranka Txirrindulari Taldeak antolatutako proba ez lehiakorra, bikerrek euren egutegian urte hasieratik gordeta izaten duten data. Jose Antonio Imaz Primek hartu du probaren ardura eta koordinazioa, Julian Claver taldekideari lekukoa hartuta. **Altsasu BTT Zeharkaldiaren ardura aurtan hartu duzu.**

Azken urteetan Julian Claver taldekide eta Barranka Txirrindulari

Taldeko presidentea zen probaren arduradun nagusia eta koordinatzailea, baina joan zen urtean ardura hori utzi nahi zuela esan zuen, probaren beste lanetan jarraitzeko. Nik hartu nuen bere tokia, baina, egia esan,

"BERNOAKO GALTZADAKO IGOERA LEHENAGO SARTU DUGU, BIKERRAK FRESKO HELTZEKO"

talde lana egiten dugu, lehen egiten genuenaren bidetik. Ni orain arduraduna naiz, Felipe Troyano bide-segurtasuneko arduraduna da, eta Julian Claverrek ere lanean jarraitzen du, agian guk baino gehiago (kar-kar). **Aurtengoa 27. edizioa da. Nola doa izena ematea?**

Oso ongi, jende asko animatu da, baina oraindik ekainaren 6ra arte eman daiteke izena Barranka taldeko webgunean. 700 txirrindulariren muga dugu. Izena ematen dutenek kamiseta jasotzen

dute opari eta kamiseta hautatzeko aukera hori jada bukatu da, baina hemendik aurrera izena ematen dutenek ere txirrindulari-poltsa (Katealde pateak, Arbizu txistorra, Lacturale esnea eta Alea olo-malutak) eta beste-lakoak jasoko dituzte.

Urtero ibilbidean aldaketa egiten duzue. Zein da aurtengo berrikuntza nagusia?

Bernoako galtzadara igo eta jais-tearen kontuari buelta batzuk eman dizkiogu. Jendeak oso gustuko du, baina orain arte Bernoako aukera hori ibilbidearen bukaera aldean egiten genuen, eta jende asko nahiko nekatuta iristen zenez, egiteko gogoz geratzen zen. Horregatik, aurtan lehenago sartu dugu Bernoara igoetzeko aukera, proba hasi eta 20. kilometroaren inguruan, txirrindulariak oraindik fresko daudenean.

Altsasutik abiatuta, Urdiaindik barrena Etxarriraino helduko zarete, handik Haritzen Ibilbide zoragarrian sartzeko.

Bai, pista azkarrak hartuta joango gara Etxarri Aranatzera, Urdia, Iturmendi eta Bakaikuko behe aldetik. Etxarri ez gara herri gunera sartuko. Igerilekuetako bidea hartuko dugu, eta Haritzen Ibilbidean sartu. Ibilbide erdiraino iritsiko gara, han buelta hartu eta haritz zoragarri horien artean jaitsiko gara. Etxarri eta Bakaiku arteko galtzada hartuta, Bernoako galtzadaren azpira iritsiko gara.

Puntu horretan tropela banatuko da. Ibilbide luzekoak Bernoako galtzadara igo eta jaitsiko dira, eta ertainekoak aurrera segiko dute, Urdiaingo igerilekuetarantz.

Hala da. Altsasu BTT Zeharkaldian izena ematen duten gehienek ibilbide luzean ematen dute izena (55 km, 1.180 m desnibela), baina momentuan hartzen dute ibilbide osoa edo tartekoa (43 km, 630 m desnibela) egiteko erabakia. Tartekoan bi igoera gogorrenak kentzen dira, kasu honetan Bernoako igoera, eta Olaztiko Auntzetxeko igoera. **Hornidura gune nagusia Urdiaingo Auntzetxen egongo da, igerilekuen ondoan.**

"AUNTZETXEKO IGOERA NAHIKO POTENTEA DA, ETA JAITSIERA PIXKA BAT TEKNIKOA, ZIG-ZAGEAN"

Bai, bertan indarrak berreskuratu ondoren, ingurueta hariztietan barna ibiliko gara; San Pedro ermita paretik pasako gara, eta baita Dantzalekutik eta Usolarraindik ere. Handik buelta ederra egingo dugu Sorozarretara heltzeko, eta ondoren zubi zintzilikaritik Oroberantz doan bidea hartuko dugu, Ameztiaiko gainera iristeko. Hor dago ibilbidearen bigarren alternatiba, Olaztiko Auntzetxera igotzen dena. Ziur jende askok ez duela igoko.

Olaztiko Auntzetxeko igoera hori gogorra al da?

Pista bat igotzen da, eta igoera nahiko gogorra da, aurretik kilometro nahikotxo egin baitira. Jaitsiera pixka bat teknikoa da, zig-zagean egin beharrekoa. Jende askok ez du egingo. Ibilbidea Ameztiaira itzultzen da, eta hortik helmugara, Iortia plazara.

Aurtengo berrikuntza da irteera eta helmuga Iortia plazan egongo direla, Foru plazan izan beharrean.

Iaz Iortia plazako lanak ez zeuden guztiz bukatuta 26. Zeharkaldia egin genuenean eta, beti bezala, Foru plazan antolatu genuen proba. Baina aurtan ekainaren 9an Europako hauteskundeak dira, eta Gure Etxea ezingo dugu erabili. Hortaz, Iortia plazan egongo gara, eta eguraldi txarra egiten badu, frontoia eta Iortia Kultur Gunea ditugu eskura. Gune zabala da, eta uste dugu toki egokia izango dela.

Biker asko Sakanako paisaia zoragarriak erakarrira etortzen dira Altsasu BTT Zeharkaldira.

Bai, hori esaten digute. Zeinen polita dago orain Sakana. Eguzkia ateratzerakoan, berde kolorea fluor hori ikustea zoragarria da. Zeinen paisaia ederra dugun, hori errepikatzen digute beti. Espero dezagun eguraldiak laguntzea eta ibilbidea baldintza onetan egotea.

Zenbat pertsona egongo zarete lanean Altsasu BTT Zeharkaldian?

Probaren egunean 65 boluntario inguru ariko gara. Bidegurutzeetarako soilik 48 pertsona behar ditugu. Ibilbidean barna jendea egotea gustatzen zaigu, edozer gerta ere, parte hartzaileak lagunduta daudela sentitzea.

Zer moduzkoa da Barranka Txirrindularitza Taldearen osasuna?

Ona. Hiru sekzio ditugu: BTT taldea, BTT mistoa eta errepide taldea. Astebururo egiten ditugu irteerak. Klub aktiboa da gurea.

Etiketa Berdea, lehengo lasterketa haien izpiritua berreskuratzeke

MENDI LASTERKETAK Uharte Arakil Beriain Km Bertikalak, Lakuntza-Aralar lasterketak eta Triku Trailek Etiketa Berdea lasterketa etikoaren aldeko manifestuarekin bat egin dute. Ingurumena eta balioak ardatz hartuta, garai bateko lasterketen izpiritua itzuli nahi dute

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Ekainaren 9an XIX. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa jokatuko da. Ekainaren 30ean X. Triku Trailek hartuko dio lekukoa Etxarri Arantzen, eta irailaren 22an Uharte Arakil Beriain Km Bertikala egongo da jokoan. Hiru lasterketa hauek aurtun elementu garrantzitsu bat dute amankomunean: Etiketa Berdea lasterketa etikoaren aldeko manifestuarekin bat egin dute. Triku Trail taldeko Igor Artiedak eta Uharte Arakil Beriain Km Bertikaleko Juanjo Goikoetxeak lasterketa etikoaren alde egindako apustuaren garrantzia nabarmendu dute, Lakuntza-Aralar mendi lasterketako Iraitz Berasategik bere egin dituen hitzak.

Zer da Etiketa Berdea?

Etiketa Berdea "hausnarketa kolektibo bat da, mendi lasterketen munduaren barruan antolatzaileen eta korrikalarien artean egin dena. Dekalogo bat da, manifestu bat, mendi lasterketak antolatu edo ulertzeko moduz ezberdin bat, modu jasangarriagoan, guztion berdintasunean eta elkartasunean oinarritutako dekalogo bat" dio Artiedak.

Etiketa Berdearen dekalogoarekin bat egin duten mendi lasterketek, Euskal Herriko 50 lasterketa inguruk, eurek antolatzen dituzten probak etikoak izango direla, hori da hartu duten konpromisoa, bai ingurumenarekiko, eta baita mendizale gisa dituzten balioekiko. Mendi lasterketek sekulako boima izan dute, eta bere onetik atera direla, hori da korrikalari eta antolatzaile askoren sentimendua. Hortik sortu da hausnarketa.

Aurrekariak

"Jokin Lizeagari gertatu zitzaiona inflexio puntu bat izan zen. Astu-

riaseko lasterketa batean lehenengo postuan zihoan. Mendia elurtuta zegoen. Gaizki seinalaztatutako sima batean erori, eta ezin atera geratu zen. Bere atzetik zertorrenak, agurtu, eta aurrera segi zuen. Jokinek laguntza eskatu zion, baina korrikalariak ezetz erantzun zion, taldeak ez ziola utziko podiumari uko egiten. Aurrera segi, eta lasterketa irabazi zuen. Hirugarren postutik atzera zetozen guztiak gelditu, eta Jokin lagundu zuten" azaldu du Artiedak.

Hein handi batean mendizale-tasunaren balioak galdu direla uste du Juanjo Goikoetxeak. "Lasterketetan mendizaleen arteko errespetu eta elkartasun hori galdu da. Ez dut esango lasterketak profesionalizatu direla, baina jendeak oso-oso serio hartzen ditu; hala daramatzagu urte batzuk. Lehen ez zen horrela; norbaiti edozer gauza gerta, gelditu eta laguntzen zenuen. Baina gaur egun jendeak dortsala janzten du eta badirudi ez duela ezer gehiago ikusten. Hain zuzen ere, Etiketa Berdearekin garai bateko lasterketen izpiritu hori berreskuratzeke nahi dugu. Korrikalariak mendian daudela sentitzea, ingurumena zaindu beharra dutela, eta elkarri lagundu beharra dutela. Egun, jendea korrika doa, gel bat edaten du eta plastikoa lurrera botatzen du. Hori ez da mendi lasterketa bat".

Asfaltoko lasterketetatik iritsi da jende asko mendi lasterketetara, eta hainbat ohitura ekarri dituzte, edalontziak lurrera bo-

tatzearena, esaterako. "Asfaltuan erraza da edalontziak garbitzea, baina mendian ez. Askok ez dakite mendia zer den ere".

Lasterketen alde iluna

Maiatzaren 16an Triku Trailek hitzaldia antolatu zuen. "Mendi lasterketak, bizitza propioa hartu duen munstroa. Nora goaz?" gaia jarrita, Uxo Irigoien eta Jokin Lizeaga mendi korrikalariak eta Gotzon Idirin Etiketa Berdea ekimenaren ordezkariak aritu ziren solasean, Aritz Ganboa mendi korrikalariak gidatutako saioan. "Oso interesgarria izan zen. Jokinek eta Uxoak egungo lasterketen lehiakortasun basati horren eraginak aipatu zituzten, bere esperientzia. Eurek modu negatiboan bizi izan dute. Uxo Irigoienek lehenengo Trikutraila irabazi zuen. Urte horietan oso sasoiko egon zen, eta lasterketa pila bat irabazi zituen, baina horrek depresio larrian eta elikadura arazoetan bukatu zuen. Lasterketak obsesio bilakatu ziren berarendako, kirolari askok duten gaitza, eta gaixotu zen. Hala kontatu zuen hitzaldian. Arreta psikologikoa behar izan zuen, eta gaixorik egon zen denbora luze batean". Lizeagak bere kasua aipatu zuen, Asturiasen gertatutakoa. Bestalde, mendi lasterketen zirimolan zenbait korrikalariak duten kontsumismoa izan zuten ere hizpide. "Entrenatzailea, medikua, nutrizionista, fisioterapia, gela, arropa... nora goaz?" Mokofinak ere badi-ra. "Arroparekin ere tontakeria asko dugu". Korrikalariak langileak dira, eta familia kontziliazioa "beste meloi handi bat" da. Gotzon Idirinek lehengo lehiakortasun sano hori berreskuratzeke Etiketa Berdeak zer planteatzen duen azaldu zuen.

"KORRIKALIARIEN ARTEKO ERRESPETU ETA ELKARTASUN HORI GALDU DA"
JUANJO GOIKOETXEA



Triku Traileko Igor Artieda eta Uharte Arakil Beriain Km Bertikaleko Juanjo Goikoetxea.

Ingurumena zorrotz babestu

Mendi lasterketak antolatzen dituzte Igor Artiedak eta Juanjo Goikoetxeak, eta, aldi berean, mendi korrikalariak dira. "Lehiatzen gara, lehiaketak antolatzen ditugu eta maite ditugu. Baina lasterketek gaur egun balio asko galdu dituzte, eta guk gure lasterketak modu desberdinean antolatu nahi ditugu; hasierako lehiaketa horiek berreskuratu nahian gabiltza. Horretarako Etiketa Berdeko dekalogoak irizpide asko markatzen ditu".

Etiketa Berdea webgunera sartuta dekalogo eta lasterketa etikoen aldeko manifestua daude irakurgai. Baita konpromisoa azaldu duten lasterketen zerrenda. "Azkenean jendeak ikusi du zer dagoen, eta ondo dago hausnarketa egin dugunok bide berdina jarraitzea".

Batetik, naturarekiko errespetuari jarraiki, probak modu jasangarrian antolatzeko konpromisoa hartu dute. Markaketa nola egin, hori da kezka nagusia, orain arte ibilbidea plastikozko zintekin markatzen zutelako, eta sarritan animaliek zinta horiek jaten zituztelako, sortzen dien kaltearekin. Zinta berrerabilga-

riak dira aukera bat. "Etiketa Berdea egitasmoan banderine berrerabilgarriak erosi dituzte, makil fin bati zigilatutako telazko seinala batzuk, gure lasterketa guztietan erabili ahal izango ditugunak". Dekalogoan jasotzen da ere markaketa lanak bezperan egingo direla, eta garbiketa eta bilketa lanak lasterketaren egunean bertan edo, beranduenez, hurrengo egunean.

Edalontziak, hori izaten da beste kezka bat. Triku Trailen konpostagarriak edo berrerabilgarriak izan daitezela erabaki dute, baina Lakuntza-Aralarren korrikalariak norberak bere botila edo basoa ekartzea eskatu diete. Beriain Km Bertikala proba laburra denez, hornidura nagusia herrian dago eta ez dute arazo hori, Beriainen soilik ur botilak eskaintzen dituztelako.

Kontuan hartu beharreko beste faktoreak ikusleak non koka-tu behar diren erabakitzea da, ingurumena ahalik eta gutxien kaltetzeko, eta baita korrikalarien kopurua zehaztea ere. "Natur Parkeetan jokatzen diren lasterketetan gehienez 500, eta gainontzekoetan 1.000".

Alde etikoa: berdintasuna

Korrikalarien arteko errespetua, elkartasuna eta mendizale-tasunari lotutako balioak berreskuratzeke, "lehenik eta behin korrikalari guztiak berdin-berdin tratatuko ditugu. Ez dugu diskriminaziorik egingo eliteen edo

"ELITEAK ETA HERRIKOIAK, GUZTIAK BERDIN TRATATZEA EZINBESTEKOA DA"
IGOR ARTIEDA



300. postuan sailkatu den korrikalarien artean. Ez ditugu bi lasterketa egingo, bat eliteendako eta bestea herrikoien dako. Eta korrikalari famatu edo ezagun bati ez diogu dirua edo egonaldia ordainduko gurera etortzeko. Agian dortsala oparituko diogu, bestelako konpromisoekin egiten dugun bezala, baina gehiago ez" argi dute. Nolanahi ere, argi dute elite mailako korrikalarietara lehiatzea eta puntako korrikalariak euren proban egotea gustuko dutela. "Jendea gehiago animatzen da eliteak daudenean".

Lizeagari gertatu zitzaiona euren lasterketetan gertatuko balitz, argi dute. "Laguntza ematen ez duena deskalifikatuko genuke". Horretaz gain, dekalogoan sarietarako diru kopurua mugatua da. "Gehienez 3.000 euro banatuko ditugu Etiketa Berdeko lasterketan" azaldu du Artiedak. "Zegama-Aizkorri agian lehenak soilik eramango du guk osora gastatu behar duguna" dio, irri-barrez, Goikoetxeak.

Zegama-Aizkorri

Zegama-Aizkorri maratokia Euskal Herriko lasterketa ezaguna eta garrantzitsua dela ezin

"MUNDU HONETAN DEBATEA SORTU IZANA, HORI BAKARRIK GARAIPEN BAT DA"
IGOR ARTIEDA

da uka. Mundu Mailako Koparako puntuagarria, izar handiak biltzen dira urtero, eta ikusle lepo egoten da ibilbidea. Korrikalari gehien ametsa da bertan lehiatzea. Antolakuntzak urtero egiten duen zozketan kopuru zehatz bat da soilik zorteduna. Juanjo Goikoetxeak bertan parte hartu izan du, eta Artieda ere gustura ariko litzateke. "Guk ez dugu Zegama-Aizkorri ez bestelako lasterketarik kritikatu; ez dugu inoren kontra ezer. Guk soilik gure modeloa defendatzen dugu, eta guztiak gara bateragarriak. Zegama eskaparate bat da, erakusleho ona. Auzolanean antolatzen da, baina baditu bere zerak" diote.

"Sancti Spirituko jende uholdea ikusgarria da, baina agian jasangarritasunari kalte egiten dio, gauzak diren bezala. Eta zenbait babesleri edo marka handiei dagokienez, etikaren marra fin horretan geundeko. Kirol etxeak modu basatian sartzen ari dira mendi lasterketetan, interes ekonomikoak tarteko; gizon eta emakume kirolari lirainak, guapoak.. irudia saltzeko; marketing hutsa da. Eta non ekoitzi dira arropa horiek? Kontraesanak sortzen dira, guk geuk ere baditugunak, erabiltzaileak garelako eta gai korapilatsua delako".

Gaia, "bolo-bolo"

Etikari begira, beste erabaki batzuk hartu dituzte. Esaterako, Triku Trailen sexu aukeren artean ez-bitarrena sartzearabaki dute, korrikalari guztien berdintasuna bermatzeko. "Transgeneroen gaia araututa dago, legedi bat dago, esperientzia eta urteetako borroka, baina ez bitarretan legalki ez dago ezer arautua. Hor mundu bat dago deskubritzeko, eta noizbait hasi beharko dugu" dio Artiedak. "Etiketa Berdearekin gai berri asko lantzen hasiko gara" berretsi du Goikoetxeak.

Etiketa Berdearen gaia "bolo-bolo" omen dago korrikalarien artean. "Jendea hausnarrarazi izatea, debatea sortu izana, hori bakarrik Etiketa Berdearendako garaipen bat da". Sakandarrak gustura daude Etiketa Berdean sartzeko hartutako erabakiarekin. "Gu ez gara katedra bat ematen ari, ez ditugu lasterketak auditatu. Konpromiso bat hartu dugu, zintzoak gara, eta lasterketa konprometitua antolatu nahi ditugu. Hau ez da moda bat".

"Lakuntza-Aralarren lehia handia egongo da"

IRAITZ BERAESTEGI RAZKIN LAKUNTZA ARALAR MENDI LASTERKETA

MENDI LASTERKETAK Ekainaren 6ra arte eman daiteke izena Lakuntza Aralar lasterketan. Nafarroako Kluben Arteko Txapelketa denez, korrikalari onenek ere izena eman dute

M.B.G. LAKUNTZA

Ekainaren 9an Lakuntza-Aralar mendi lasterketa jokatu da, Zabalarte klubak antolatuta. Aurten izena emate gehiago daudela nabarmendu du Zabalarte-ko Iraitz Berastegik, eta korrikalari eliteek izena eman dutela, lasterketa Nafarroako Kluben Arteko Txapelketa izango delako. **Lakuntza-Aralar lasterketa aldi berean Nafarroako Kluben Arteko Txapelketa izateak antolakuntza lan gehiago dakar?**

Ez. Antolaketa berdina da, baina txapelketa denez, korrikalari gehiagok ematen dute izena. Iazko izena ematearekin alderatuta dezente nabaritu da.

Oraindik zabalik dago izena ematea?

Ekainaren 6a da izena emateko azken eguna. Lasterketa motzean (13,3 km, 640 m desnibel +) izena emateak agortu dira, eta oso pozik gaude. 150 korrikalari dira. Motzean emakumeen partaidetza asko igo da; herenetik gora dira emakumeak, eta berri pozgarria da. Lasterketa luzean (26 km, 1.200 m desnibel +) 120 korrikalari inguru daude izena emanda, eta 50 korrikalariendako tokia dago. Hemen normalean %80 gizonetakoak izaten dira. Horretaz gain, mendi martxa dugu ere. Ibilbide motzeko ibilbidea kontrako norantzan egiten da, eta 8:30ean abiatuko da. Lasterketak, aldiz, 9:30ean.

Haurrendako zerbait antolatu duzue?

Haurrengan zaletasuna sustatu nahi dugu, eta 10:00etatik aurrera lasterketa labur batzuk egingo ditugu plazan, haurrek beraien tartetxo izan, eta lasterketaren parte izateko. Dorsalak egunean bertan jasoko dituzte, eta bukaran sorpresa izango dute. Bestalde, 18 urtez azpiko lakuntzarrek parte hartzea dohainik izango dute, bai lasterketa laburrean, eta baita mendi martxan ere.

Korrikalari ezagunak etorriko dira?

Oilar guztiak edo gehienak izena emanda daude, eta uste dugu



Iraitz Berastegi Razkin, ezkerrean, joan zen urteko txapeldunekin. UTZITAKOA

"NAFARROAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA DENEZ, OILAR GEHIENEK EMAN DUTE IZENA"

lehia handia egongo dela. Data oso zailak dira hauek, ekitaldi askorekin, baina hala ere lasterketari oso onek eman dute izena. **Guztia antolatzeko zenbat ari zarete lanean?**

Lan taldean 5 pertsona gaude, lasterketaz gain mendi irteerak eta beste prestatzeko. Egunean bertan 90 boluntario inguru egongo gara lanean. Pozgarria da herritarren laguntza hori izatea. Aurten deialdi moduko bat egin dugu, belaunaldi erreleboa prestatzen hasteko. Pixkanaka gazteak sartzen ari dira, eta hori pozgarria da.

Lasterketa luzea Irumugarrietaraino (1.431 m) iristen da, eta korrikalari askok ikusgarria dela diote. Ibilbidea oso polita da, bereziki Guardetxetik aurrerako ibilbide guztia, Aralarko parke naturala ikusgarria baita. Berde-berde dago guztia, oso ederra. Motzak

Guardetxeraino (1.035 m) egiten du bidea luzearekin batera, baina gero beste bide bat hartzen du. Hasiberriendako edo horrenbeste km egin nahi ez dutenendako oso egokia da. Ez dauka luzeak dituen ikuspegiak, baina ibilbidea polita da.

Egun horretan goizetik egoten da mugimendua.

Goizeko 8:00etan hasten gara dortsal banaketarekin eta giroa sortzen da. Lasterketa plazan ikustea polita da, baina Guardetxera igotzea ere aukera ederra da, lasterketako puntu ezberdinak ikus daitezkeelako. Eta lasterketa jarraitzeko beste aukera polita mendi martxan parte hartzea da. Jendea lasterketa ikustera etortzera animatzen dut; ongi pasako dute.

Etiketa Berdean sartu zarete; beste pauso bat.

Triku Trail, Uharte Arakil Berriain eta hirurok mendizaleak gara. Horrela, aspalditik datozen balioak dauzkagu, eta balio horiek mantentzea da helburua, hau guztia ez degradatzea. Jasangarritasuna sustatu, korrikalarien arteko berdintasuna bermatu, eta euren arteko elkar laguntza eta giro ona sustatu, hori da nahia.



Ergako Trinitatera heltzeko azken metroak jendeartean eta animo oihuen artean egin zituzten korrikalariak. JOSE LUIS GORRIA

Ergako kronoigoera, Zegama txiki bat

MENDI LASTERKETAK La Guanek antolatutako IX. Ergako Kronoigoeran 65 korrikalari hartu zuten parte. Proba txikia da, herrikoia, baina giroa goi mailakoa. Ekhi Congil izan zen lehen sakandarra, eta Aitor Martirena eta Nerea Balda lehen irurtzundarrak

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Zegama Aizkorri mendi maratoiak irudi ikusgarriak utzi zituen igandean, baina bezperan Irurtzunen jokaturako IX. Ergako Kronoigoera ez zen gutxiagorako izan, jende asko bildu baitzen Ergako azken metroetan korrikalariak animatzera. La Guan taldeak antolatzen duen proba

urtetik urtera erakargarriagoa da, eta aurten ere jende asko animatu zen.

La Guan kuadrillak antolatzen du lasterketa herrikoia. "Gurea etxeko lasterketa bat da, txikia, guk antolatzen dugu guztia. Beti esaten dugu gehienez 60 partaide hartuko ditugula, baina ez dugu Irurtzungo eta gertuko

jendea kanpoan geratzea nahi eta, azkenean 65 korrikalari hartu zuten irteera Irurtzungo plazatik, Ergako Trinitatera heltzeko" azaldu du La Guan taldeko Roberto Martilek, aldi berean Xotako kapitaina denak. Hala ere, jende dezente geratu zen kanpoan, "baina ulertu zuten, antolaketarako zaila baita".

Bertakoendako proba

Izan ere, proba guztiz herrikoia da Ergako Kronoigoera. Sailkapena eskuz idatzitakoa izaten da, eta denborak La Guanekoek hartzen dituzte. "Erloju bat dugu behean, bestea goian, eta biak sinkronizatuta ditugu. Horrela hartzen ditugu denborak" dio irribarrez Martilek. Ez dute euren proba lasterketa serioagoan bilakatu nahi, "inondik inora. Guk nahi duguna da Irurtzungoak eta inguruko bailaretakoak, Arakil, Imotz, Iza, Sakanako gainontzeko herrietakoak... gurean parte hartzea. Jende ezaguna aritzea oso polita da".

Korrikalarien erantzunarekin eta korrikalariak animatzera Ergara igo zen jendetzarekin "oso eskertuta eta oso pozik" daude La Guaneko kideak. "Batzuek zein besteak dira ezinbestekoak, korrika egitea bezain garrantzitsua baita jendea Ergara animatzera igotzea. Zaleek sekulako giroa sortu zuten Trinitateko azken metroetan. Zegama-Aizkorri bezala, bide bat egin zen azken tartean, eta ikusgarria izan zen. Korrikalariak oso hunkituta zeuden, horrela korrika egitea sekulakoa delako".

Lizarrako Ander Amezketa (22:42) izan zen txapelduna, Ekhi Congil etxarriarraren aurretik (22:53). Emakumezkoetan Iruñeko Irene Artazkoek irabazi zuen, alde handiz (26:08). "Artazkoek bezperan Zegamako Km Bertikalean hartu zuten parte. eta

Ergako Kronoigoeran emakumezkoen errekorra apurtu zuen". Lehendabiziko gizonetako herriarrak Aitor Martirena, Ion Urrea eta Ioritz izan ziren, eta emakumezkoak Nerea Balda, Maria eta Maider Iragi. "Aurten emakumeen parte hartze errekorra apurtu zen, hamalau animatu zirelako, eta oso pozik gaude".

Auzate animatua Ergan

Proba bukatuta, bildutakoek auzate ederraz gozatu zuten Erga gainean. "Festa polita izaten da, eta giro ederra sortzen da. Trinitateko erromeria, berez, igandean izaten da, baina gazte asko ez gara igotzen, bezperan parranda egin dugulako. Horregatik antolatu genuen kronoigoera, beste modu batez Ergara igotzeko". Herrira jaitsita, 250 pertsona bildu ziren herri bazkarian. "Aurten irabazi didazu, baina ikusiko duzu hurrengo urtean nik pasako zaitut... halako komentario pila entzun genituen, denetariko apustuak. Hori da nahi duguna, proba etxekoek egitea eta bizitzea".

Datorren urtean hamargarren edizioa izango da. "Zerbait berezia prestatu beharko dugu".

"GUREA PROBA HERRIKOIA DA; NAHI DUGUNA DA ETXEKOEK PROBA BIZITZEA"
ROBERTO MARTIL

Triatlonporrasek gatza eta piperra jarri zion Euskal Festari

TRIATLOIA Etxarriko triatloi proban apustua egiteko aukera izan zen. Altxelai eta Estarriaga gailendu ziren

M.B.G. ETXARRI ARANATZ

Iñerexagubek gazte kuadrilak kirol ekitaldi berezia antolatu zuen Euskal Festaren egitarauaren barruan: V. Triatlonporras triatloia. Etxarri Aranzako kanpinetik abiatu zen proba, igeriketa sektorearekin. Igeriketetan 500 m igerian egin eta gero, bizikletan 17 km-ko ibilbidea osatu zuten partaideek, bukaeran 5,3 km-ko korrikaldia eginez, plazara heltzeko.

Herriko proba izanik, ikusmina handia zen, eta ikuslez lepo zegoen plaza. Irabazlea, meritu

handiz, Pello Altxelai (1:31:04) izan zen, Oier Aierdiren (1:32:26) eta Iñaki Aguirreren (1:34:23) aurretik. Emakumezkoetan, Leire Estarriaga (1:51:59) gailendu zitzaion Sarabe Arakamari (1:52:06), alde gutxi.

Gainontzeko partaideei dago-kionez, Iosu Jaka laugarren izan zen (1:34:23), eta bere atzetik Xabier Mauleon (1:36:6), Aimar Araña (1:39:27) eta Andoni Goikoetxea (1:41:41) sailkatu ziren. Sarabe Arakamaren atzetik Aritz Jaka (1:52:06) eta Kai Karasatorre (2:17:23) iritsi ziren helmugara.



Oier Aierdi eta Pello Altxelai, helmugan eskua ematen.

LABURREAN

Sakandarren Zegama-Aizkorri



Kilian Jornetek (3:38:07) eta Sylvia Nordskarrek (4:29:12) sekulako erakustaldia eman zuten Zegama Aizkorri. Sakandarren kasuan, Asier Leiza Razkin arbizuarrak (6:44:02, 385. postuan) eta David Fernandez de Garaialde Lazkanok (7:41:27, 464. postuan) lortu zuten proba despeditzea. Bezperan jokaturako Km Bertikalean Alatz Agirre arbizuarrak 122. sailkatu zen (51:47).

Euskal dantzen ikuskizun berriak

Altsasuko Musika eta Dantzako Eskolako dantza ikasleen bi emanaldi izanen dira gaur, maiatzak 31, ostirala, txiki eta gaztetxoek taldeak eta ekainaren 7an, ostirala, gazteen taldea. Etzi, igandean, Etxarriko Dantzari Txiki Eguna antolatu du Etorkizunak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Gure bidea eginez deitzen da Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako dantza ikasle txikiak gaur, maiatzak 31, ostirala, 19:00etan, egingen duten emanaldia. Euskal dantza tradizionalak eta koreografia berrietan banatuko da ikuskizuna. Bost taldek parte hartuko dutela esan du Iñaki Agirre dantza irakasleak, eta guztira 40 bat dantzari ariko dira. Sei urte eta 12 edo 13 urte bitarteko haur eta gaztetxoek izanen da gaurkoa, eta 15 eta 16 urteko talde bat ere egonen da, "datorren astean irteera bat dutelako eta ezin genuen ziurtatu zaharren ikuskizunera helduko ziren". Ekainaren 7an, ostirala, 19:00etan, Etorkizunari so emanaldia egingen dute gazte eta helduen hiru taldek; guztira 40 bat dantzari. Datorren asteko emanaldian euskal dantza tradizionalen urratsak oinarri hartutako "koreografia berriak" erakutsiko dituzte.

Ikasturte hasieran Agirre euskal dantza tradizionalak erakusten hasten da: "Dantzari Txiki Egunetarako behar dituzte, orduan lehenengo gauza da horiek ikastea; gero denbora izanez gero koreografiak sortzen ditut". *Gure bidea eginez* ikuskizunean "denetarik" dantzatuko dute dantzariak: Gipuzkoako dantzetan oinarritutako batzuk, Bizkaiko dantzetan ere... "Herrialde bakoitzetik baten bat dago, ez guztietatik baina bai gehienak". Emanaldiaren bigarren zatian euskal dantzetan oinarritutako koreografiak izanen dira ere.

Klaseak ematea "gero eta zailagoa bihurtzen ari dela" aitortu du dantza irakasleak. "Arreta mantentzea izugarri kostatzen zaie; ikastea ikaragarri kostatzen zaie. Ez dakit zer gertatzen ari den, suposatzen dut teknologia berriak eta mugikorrak eta horrelakoak izango direla". Haurrak hain estimulatu daudenez, "ez



Dantza ikasleen emanaldia. UTZITAKOA

DANTZA IKASLEEN BI EMANALDI IZANEN DIRA IORTIA KULTUR GUNEAN, GAUR ETA DATORREN OSTIRALEAN

dira gai lehen bezala arreta mantentzeko" esan du. "baina tokatzen zaiguna da". Beste erronka bat.

Ikasturte amaierako ikuskizunak urtean zehar dituzten emanaldiekin uztartu behar dituzte dantzariak, besteak beste, Dantzari Txiki Eguna: "Apiriletik aurrera pilatzen zaizkigu gauzak. Apirilean Dantzaren Nazioarteko eguna da eta atera ginen, maiatzaren 19an Dantzari Txiki Eguna ospatu genuen Altsasun eta igandean Etxarri Aranatzan ospatuko dugu ere; 9an Lazkao-ra goaz eta martxoan Lesakan egon ginen". Horregatik ikasturte hasieratik euskal dantza tradizionalak lantzen ditu klaseak, eta martxoa aldera koreografia berriekin hasten da ikasturte amaierari begira.

Etorkizunari so gazte eta helduen taldeen ikuskizuna izanen da, eta bertan "dantza tradizio-

nen baten bat badago", baina orokorrean koreografia berriak egiten ditu Agirrek. "Beraiek atseginagoa daukate. Euskal dantzetako urratsetan oinarrituta daude, eta garaikide urratsen bat sartzen dugu ere, puntu berezi edo desberdina sartzeagatik". Musika modernoagoarekin "gehiago engantxatzen" direla esan du irakasleak. "Baina oinarria euskal dantza da".

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako dantza emanaldiatarako sarrerak euro batean eros daitezke Iortia kultur guneko webgunean eta txarteldegian.

Dantzari Txiki Eguna

Ekainaren 2an, igandea, 11:00etatik aurrera, Etxarriko Dantzari Txiki Eguna antolatu du Etorkizuna dantza taldeak. Dantzari, musikari eta begiraleak ordu horretan plazan bilduko dira eta eguerdian kalejirarekin hasiko dira. Herriko txokoetan dantza emanaldiak egiteko geldialdiak egingen dituzte, eta ondoren 13:30ean plazan dantza saioa egingen dute. Aguraingo Jeiki eta Irurtzungo Orritz dantza taldeak gonbidatu dituzte.



BAZTERRETIK

ALTSASUKO
LIBURUTEGI PUBLIKOA

Altsasuko liburutegiko proposamenak

HELDUENDAKO:

Lanbroa

Pello Lizarralde. – Erein, 2024
Larunbat arratsalde merkataritzagune batean. Gizon bat dabil han familia ondoan duela. Emakume bat ere bai, bakarrik eta zerbait erosteko asmoz. Begiradarik gurutatu ez arren, gizonak eta emakumeak elkar ikusi dute. Horrek eragin dien asaldura izugarriak handik lehenbailehen irteteko eta etxera erretiratzeko behar larria ekarri die. Bakoitza bere aldetik, hogen urte lehenago gertatu zena biziberritzen ahaleginduko da. Egun hartan ordu batzuk eman zituzten elkarren ondoan, eta ez biek hala nahi izan zutelako. Lanbroak hartutako lurralde batean barrena ibili ziren ihesi, helburu zuten muga lausoa noiz iritsiko. Bataren ahotsak ekartzen dizkigun oroitzapenak ez datoz bat bestearekin. Oroitu nahi izatea ez da nahikoa. Gogoratzen denari lotuta beti egoten da ahazten denak uzten duen hutsunea, eta bi protagonistei, aurrera egingo bazuten, orduko hura burutik kentzea komeni

zitzaien. Hala ere, iraganak gordetakoak ez da gure nahira etortzen, eta betiko lo zegoela uste genuena noiznahi agertu daiteke. Ezin jakin noiz, ezin jakin nola...

GAZTEENDAKO, HELDUENDAKO:

Gorputz txiki batean jaio nintzen

Mikel Denis. – Denonartean, 2023

Gorputz txiki batean jaio ginen, eta hortik esleitu ziguten genero bat, guk geuk gure nortasuna zein den adierazi aurretik. Esleitze horretatik jaiotzen dira inposaketak ere, desberdintasunak, etiketak, aurreiritziak eta gutaz espero diren hainbat gauza. Eta zer erru dauka nire gorputzak?

HAURRENDAKO – GAZTEENDAKO – HELDUENDAKO:

Gabon eta ondo lo egin!

Esther van den Berg. – Ttartalo, 2023

Marigorri gaueko lo-begiralea da. Zer egiten dute intsektu-hoteleko xomorroek lotara joan aurretik? Hartzak garbitzen dituzte? Ipuintxo bat irakurtzen dute? Hori ikustera doa Marigorri! Lotara joan aurreko ohiturei buruzko liburu alai eta dibertigarria. Loti txikientzat eta gautxorientzat.

Lotara joan aurreko ohiturei buruzko liburu alai eta dibertigarria.



SAKANAKO HERRI ESKOLAK

Antzerkia Lakuntzako euskaran

"Lagun Artea, hobe!" antzezlanak mustu zuten Lakuntzako Herri Eskolako ikasleek. Herriko euskaran sortutako lana da, "beraien artean ezagutza handitzeko". Antzerkia oso arrakastatsua izaten ari dela eta helburua betetzen ari dela esan dute eskolatik. Ekainaren 5ean, 11:30ean, Altsasu institutuan emanaldia egingen dute. Gaia Lagun Artea futbol taldearen partida bat da.

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Pello Reparaz musikari arbizuarrak 2019. urte amaieran musika elektronikoa oinarri zuen ZETAK proiektua jarri zuen martxan. Lehengo diskoak taldearen izen bera zuen, *Zetak*, bigarrena *Zei-nen ederra izango den* izan zen eta pandemia garaian sortu zuen eta hirugarrena *Aaztiyen* 2023. urtearen amaieran kaleratu zuen. Besteak beste, musika elektronikoa, euskal doinuak, mitologia eta Unanuko inauterietako estetikak uztartu zituen diskoan. "Bilaketa prozesu" baten emaitza izan zen *Aaztiyen*. ZETAK proiektua martxan jarri zuenetik bost urte pasa dira, eta modu berezian ospatu nahi dute: *Mitoaroa* ikuskizuna egingo dute 2025eko urtarrilaren 4an, Nafarroa Arenan. Gonbidatu bereziak izango dituzte ere: Unanuko mamuxarroak, Arbizuko txatarrak, Altsasuko momotxorroak, baita Iturengo eta Zubietako joaldunak, Lantzeko inauteria eta Tuterako zipoteroak ere. Sarrerek ekainaren 4tik aurrera eros daitezke, ZETAKen webgunean.

'AAZTIYEN'

Nondik sortu zenuen 'Aaztiyen'?

Urtetako prozesu bat da. Bilaketa prozesu bat. *Aaztiyenen* zergatia ulertzeko oso atzera joan behar gara uste dut. Musika profesionalean Vendettarekin hasi nintzen. Urte horietan guztietan nire tendentzia izan da ahots baten bilaketa eta prozesu horri eustea. Urteak aurrera joan ahala partikularren bilatzeko prozesu bat egiten joan naiz. Hau da, musika generikoagoa bilatu eta generokotasun horrekin jende gehiagorengana heldu beharrean, urteen poderioz prozesua pixka bat kontrakoan izan da: partikularragoa, bereziagoa eta bakarra horretarajotzea. Prozesu horretan zehar inflexio puntu garrantzitsuak izan dira; adibidez, Vendettan euskaraz eta gaztelaniaz jotzen genuen, eta Vendettatik ZETAKera emandako saltoan estiloak eta horrelakoak alde batera utzita, nik uste oso garrantzitsua izan zela ZETAK bakarrik euskaraz izatea. Prozesu horretan, harago joan nahi izan horretan, heldu naiz puntu batera non ondoko herrian, 60 bat biztanle dituen Unanu herrian, zerbait oso berezia dagoen; bertako mamuxarroak. Euskal Herrian ez da oso ezaguna, eta horri heldu nahi izan diot. Bakarra, berezia eta partikularra den horren bila-

"Euskal erlijio zaharraren birtopaketa gauzatuko da"

PELLO REPARAZ ZETAK

Nafarroa Arenan ospatuko du musikari arbizuarrak proiektuaren bosgarren urteurrena. Besteak beste, mamuxarroak, txatarrak eta momotxorroak izango dira

keta prozesu bat izan da. Hortik dator, adibidez, *Aaztiyen* diskoak Sakanaz, Arbizuz eta bertako detailez hainbeste edatea.

Aurreko bira amaituta, ZETAKen amaiera zela zirudien, eta 'Aaztiyen' sortu zen gero. Nolakoa izan da prozesua?

Komunikatiboki zabaldu genuen amaiera bat eta beste hasiera bat izango zela. Musikaren munduan askotan egiten da, eta ni ez naiz zalea askotan espektatiba horien alturan ez delako egoten ondoren datorren hori. Baina hiru urte pasa ditut soinu horren bilaketak, *Aaztiyen* soinu horren bilaketan, eta benetan sinisten nuen aurretikoaren amaiera bat zela eta zetorrena beste zerbait zela. Loturekin eta konexioekin, noski; prozesu natural baten ondorioa da. *Aaztiyene*k badauka sonoritate oso propio bat, ZETAKen aurreko sonoritateetik edaten duena, baina euskal soinu identitatearen historiatic edaten duena ere. Horregatik komunikatiboki gure planteamendua hain agresiboa izan zen, benetan sinisten genuelako zetorrenak zerbait aportatuko zuela. Hori da *Aaztiyen*, eta izugarri pozik nago horrekin.

Partikularitasun horretan euskal mitologiaren erabilpena dago ere. Mitologia aurretik jarraitzen zenuen?

Beti gustatu izan zait mitologiaren gaia. Oso eszeptiko erradikala naizen horretan, nahiko kontraesana da, baina nik neuk oso

indartsu sentitzen dut kontu hori. Perspektiba arrazional batetik analisi eginez gero, ez dut inolaz ere mitologiako kontuetan sinisten, baina uste dut horrek guztiak zenbait emozio eta sentipen azalerazten dituela euskaldunengan, eta horiek erabili eta eskuztatu ditu modu batera edo bestera esatearren. Ikaragarri emozio-natzen naiz. Adibidez, *Aralarko Dama* idatzi nuen garaian emozionatu nintzen, benetan sinisten nuen oso-oso nirea zela. Nigan zituen sentipen batzuk edo emozioen bat pizten zuen abestigintza prozesu bat zen, orduan, uste dut badagoela zerbait oso-oso gurea dena, eta hortik harago joatea ere espero dut.

Zer da tradizioa?

Tradizioa lotu izan du urtetan norbaitek historioaren une zehatz baten izan guk izan ditugun ohi-

"EUSKAL MITOLOGIAN UZTARTZEN DIREN ETA IDENTITATEAZ ARI DEN SHOWA PRESTATZEN ARI GARA"

"PERTSONAIA HORIEK HOR IZATEA EZINBESTEKOA DA; BESTE MAILA BATERA ERAMANGO DUTE"

turak deskribatu eta definitu nahi izan dituen hori bezala; horiek gara horretan bezala batestu nahi izan dituen zerbait. Horrekin apurtzeko ariketa pertsonal garrantzitsua izan da *Aaztiyen*. Uste dut abertzaletasun rancio baten ikuspegitik, ez da hori nire abertzaletasuna, ariketa hori egin nahi izan dela; deskribatu, islatu eta izoztu gure ohi-turak historiaren garai zehatz batean. Nik uste dut horrekin apurtu eta guk tradizioa bera ere eskuztatu behar dugula, aldatzen joan behar dela eta urteak aurrera joan ahala artista desberdinek eta herritarrek horrekin jokatu behar dutela eta aldatu behar dutela. Likidoak ez bagara ez gara izango. Esaldi hau asko erabili dut azken urtetan lan taldearekin, eta benetan sinisten dut horrekin.

Unanuko katolak irudi bihurtu dira. Zergatik Unanuko inauteriak?

Hasieran aipatutako partikularitasun horrekin lotuta dago. Altsasuko inauteriak nazioarteko perspektiba batetik oso gauza partikularra eta bereziak dira, baina harago joan nahi izanez gero, Altsasukoak Euskal Herrian oso ezagunak dira, eta partikularragoa, ezezagunagoa edo bereziagoaren bilaketa prozesuan Unanuekin egin nuen topo. Gertu bizi izan ditugu, eta iruditzen zitzaidan ariketa koerenteagoa zela diskoaren sormen intentzioarekin. Unanuko inauterien

janzkeraren berrinterpretazio txiki bat egin dugu.

Unanuko inauterietan egon zara?

Aurten izan gara, eta nik duela urte nahikotxo, gaztetxo nintze-la, esperientzia ez hain atsegin bat ere izan nuen. Baina maitasunez gogoratzen dudana zerbait da, nire gazteriaren beste gertaera bat.

Zer gertatu zen 2009an?

Milio bateko galdera. Askotan erantzun izan dudana, erantzun gabe. Nik aldarrikatu nahi dut fikzioa euskal abestigintzan. Euskal zineman asko egiten ari da, eder eta fin; azken urtetan puntako fikzioa egiten ari da eta etortzeaz dauden ikus-entzunezkoetan ere etorriko da. Baina abestigintzan ez hainbeste. Abestigileoi Euskal Herrian eskatu izan zaigu edo horrela sinisten dut, behintzat, gardentasun bat gure izaerarekin edota guk kontatzen ditugun istorioak izan behar direla guk bizitutako istorioak. Azken hamarkadetan horrela izan da. Orduan, fikzio hori aldarrikatu nahi dut. Argi eta garbi nire abestietan badira egiak eta ez hain egiak ere. 2009az ari gara, horri heldu diot abestien artean konexioak sortzeagatik, jendeari atzean dauden istorio horiek pertsona bat amankomunean duten sententzia emateagatik. Pertsona hori ni neu naiz. Azkenean, nik bizipen asko izan ditu, hemen Sakanan, eta ZETAKen imajinarioarekin bat egiten du bertako istorioak, izenak eta izen propioak erabiltzearena. Egia da badagoela nire abestietan dagoena baino egi gehiago aurkitu nahi duenik, eta Sakana are gehiago. Jende askok galdetzen dit, juergan ere bai, norendako den abesti hau edo bestea. Ondo dago jendeak hitz egitea, horretarako ere balio du. Baina, esandako, erantzuna da fikzioa aldarrikatu nahi dudala.

IKUSKIZUNAK

Sortze prozesuan ikuskizunak ere buruan dituzue edo gerora sortzen dituzue?

Zuzeneko showak muntatzea izugarri gustatzen zait. Orduan, askotan ezin dut ekin abestigintza prozesuan zuzenekoan nola egin dezakedan pentsatu. Baina egia da ere disko bat egitearen prozesua geroz eta gehiago maite dudala. Konplikatuagoa da exigentzia maila nahiko puntu goren batean aurkitzen naitzelako, eta horrek badauka bu-

ruhauste pila bat, baina saiatzen naiz disko bat sortzean erabateko askatasuna izaten. *Aaztiyenen*, adibidez, bazirela ideia batzuk hasieratik zuzenekoetarako pentsatu nituenak, baina diskoan eta soinu identitate horretan erabat zentratu nintzen. Gerora istorio horiek zuzenekora begira beste batera uztartzea nahi izan dut, eta istorio berri bat eskaini. **Aretoen biraren arrakasta espero zenuen?**

Espero genuen aurreko biretan baino jende gehiago etortzea. Horregatik aukeratu genituen Euskal Herriko areto handienak eta horregatik Madrilen eta Bartzelonan La Sala Wizink eta Apolo aretoetara joan ginen. Baina ez genekien, ez genuen espero, hainbeste data eta aretoak errepikatu behar izatea. Iruñean Zentral batean egitetik Totemen egitera pasa ginen jende gehiago sartzen delako, eta hiru emanaldi jarraian egin ditugu. Espero genuen harrera ona izatea ikusten genuelako gure zalegoaren ibilbidea eta bagenekien lan on bat genuela eskuartean. Baina ez genuen hainbesterainokoa izango zenik espero. Poza ikaragarria da. Azkenean, horrelako proiektu baten atzean jendea asko dago, hamarnaka eta hamarnaka pertsona gaude saltsan, eta jendearen soldatak ordaindu behar ditugu, duinak, eta zalegoaren babesak horrelakoa izatea gaitasuna ematen digu proiektu berrietan murgiltzeko eta *stand by* zeuden hainbat proiektu aurrera eramateko. Ideia asko ditugu, baina horiek nahiko garestiak izaten dira; horiek garatzeko aukera jendeak eskaini digu. Polita da komunitate baten bidez proiektuak aurrera eraman ahal izatea.

MITOAROA

ZETAKek bost urte beteko ditu, eta Nafarroa Arenan ospatuko duzue. Zer ari zarete prestatzen?

Burubelarri murgilduta gaude. Nire bizitzako erronkarik handienetakoa da. Nafar talde bezala eta euskaraz abesten dugun horretan, Nafarroa Arena bezalako toki batean kontzertu bat egitea inflexio puntu bat da nire bizitzan. Ez dut sekula horrelakorik egin. Ezin emozio-natuago nago, bertigo pixka batekin ere; dudarik gabe nire bizitzako unerik garrantzitsuenetakoa izango da.



Pello Reparaz 'Mitoaroa' ikuskizunaren aurkezpenean. UTZITAKOA

Nafarroa Arena helmuga bezala jarri zenuen?

Uste dut errazago dela Nafarroa Arenan kontzertu bat ez egitea, kontzertu bat egitea baino. ZETAKen izaerarekin bat dator gure buruari horrelako erronkak jartzea. Anbizio horretan kokatzen da kontzertu hau, bosgarren urteurrena. Polita da. Gainera, kontzertu honen testuinguruan izango duen forma kontuan hartuta, egun horretarako bakarrik sortutako *show* bat izango da. Show horrek nafar iruditegi herrikoia aldarrikatuko du, eta

"BOSGARREN URTEURRENA DA, ETA 'MITOAROA' PROZESU HORREN ISLA IZAN BEHAR DA"

"ZETAK PROIEKTUARI NIRE BIZIA EMAN DIOT, ERABAT; HARRO NAGO, OSO POZIK"

militantzia apur bat du ere egun horrek. Benetan harro nago erronka honekin eta gogoz eta ilusioarekin hartu dut. Ez da gauza makala 10.000 pertsonatik gora bildu nahi duen ikuskizun bat egitea.

Gonbidatu bereziak izango ditu.

Show honen izena *Mitoaroa* da. Show oso berezia da. Bost urte beteko ditu ZETAKek eta Nafarroa Arenan izango da, hori ezin dugu alde batera utzi. Uste dut oso garrantzitsua dela ulertzeko apustu honen garrantzia. ZETAK heldu den puntu eta

partikularitasun hori kontuan hartuta, gure euskal izaera eta euskal mitologia uztartzen dituen eta identitateaz ari den show bat sortzen ari gara. Nafar eta euskal iruditegi herrikoi hori ulertzeko laguntza behar genuen, eta hilabeteko hausnarketaren ondoren erabaki dugu gonbite batzuk luzatzea eta horiek baiezko erantzuna izan dute. Zorionez, Unanuko mamuxarroak, Arbizuko txatarrak, Altsasuko momotxorroak, Iturendik eta Zubietatik ere joaldunak etorriko dira, Lantzeko inauteriak eta Tuterako zipoteroak ere izango dira. Uste dut oso ente garrantzitsuak direla nor garen, nondik gatozen eta ziurrenik ere nora goazen erantzuna emateko. Hori da gure erronka. Hori da pertsonalki gehien interesatzen zaidana eta entitate horien guztien parte hartzea ezinbestekoa da Nafarroa Arenan urtarillaren 4an gertatuko den hori ulertzeko. Aspektu horretan berezia izango da; ederra eta historikoa. Gonbidatuen artean ere Erramun Martikorena egongo da. Niretzako oso garrantzitsua zen bera egotea.

Zein izango da haien papera?

Mitologiaren busti. Mikrofonotik esaten ditudan gauzak, kontatzen ditudan istorioak eta *Aaztiyenen* unibertsoa ulertzen laguntzen dute. Musika elektronikoa, sonoritate euskaldunak eta mitologia tematika uztartzen dira, eta sinisten dut bisualki euskal erlijio zaharraren birtopaketa historiko bat gauzatu dugula. Showa beste maila batera eramango dutela sinisten dut.

Urtarrilaren 4a baino lehen abesti berriak egongo dira?

Ez. Showarekin ari gara, eta *Aaztiyeni* heldu behar diogu; ZETAKen abestiei. Azkenean, bosgarren urteurrena da, eta prozesu horren isla izan behar da *Mitoaroa*. Gelditzeko eta atzera begiratzeko momentua da.

Eta atzera begira nola bizi izan duzu ZETAK?

Bost urte izan dira, eta 30 izango balira bezala sentitu dut. Proiektu honi nire bizia eman diot, erabat, eta harro nago; oso pozik nago. Egia da ere nire lagun batek zioen bezala, Izarok zioen bezala, berriz hau guztia egin behar izan banu, ez dakit egingo nukeen. Energia asko jarri diot proiektu honi.

"Txatarrera doazenak, berreskuratzen ditugu"

Arbizuko Udalak utzitako lokalean eta hark emandako tresneriarekin bizikletei bizi berri bat ematen ari zaizkio, ondoren atzerrira bidaltzeko. Hortan aritzen denetako bat da Mitxel Zenarruzabeitia Unamuno. Laguntza eta bizikletak ongi etorriak dira.

Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

1 Elefanteenaren pare, zuena bizikleten hilobia da?

Hilobitik datozen erremintak dira, baina bigarren bizitza eman nahi diegu. Jendeak botatzen dituen bizikletak, txatarrera doazenak, berreskuratzen ditugu. Beraz, bizikleta hilobi baino ebakuntza gela.

2 Larri al daude?

Oso gaizki daudenak ez ditugu hartzen. Garbi guneetako langileekin harremana dugu eta esaten diegu konponketa txiki batzuk egin eta prest leudekeen bizikletak gordetzeko. Oso gaizki dagoen bizikletekin hasiko bagina, bakoitzarekin denbora asko emanen genuke eta bizikleta kopuru txukun bat egiteko denbora gehiegi beharko genuke.

3 Nola iritsi dira bizikleta gajo horiek Arbizura?

Hondakin bilketan lan egiten dut. Sakanako Mankomunitatean lanean hasi nintzen eta Arbizuko eta Altsasuko garbi guneetan agertzen diren bizikletak berreskuratzeo aukera aztertu nuen. Baina Emausko Trapuketariak arduratzen dira horretaz hemen. Debagoieneko Mankomunitatean lan egiten dut gaur egun, han saiatu nintzen bizikletak eskuratzen. Haien aldetik ez zen egon arazorik eta handik hartzen ditugu.

4 Diagnosia eginda heldu dira, edo hemen aztertzen dituzue?

Haurren bizikletak kentzen dira txiki geratu direlako eta, normalean, nahiko ondo egoten dira. Baina mendi bizikleta handiak, gehienak, kolpe handi batekin edo tratu oso txarra jasota, aberia dezenterekin etortzen dira. Lehenagoko bizikletak erraza goak dira konpontzeko, mekani-



Mitxel Zenarruzabeitia Unamuno, bizikleta zale solidarioa.

ka sinpleagoa daukate. Baina azken belaunaldiko bizikleta horiek, berriak, zailagoak, konpontzeko orduan lan gehiago daukate.

5 Dudan bizikleta zuei ematerik dut?

Bai. Zenbat eta bizikleta gehiago guretako hobeto. Jakina, egoera oso txarrean baldin badago, ez. Interesatzen zaigu jendeak etxean dauzkan eta erabiltzen ez dituen bizikletak berreskuratzea.

6 Bakarrik aritzen zara?

Momentuz hiru gaude: Inko Iriarte, Katxo Barandiaran eta hirurok. Aurrera begirako asmoa da proiektu honetarako gero eta bizikleta gehiago biltzea eta bide-

ratzea. Zulaketak eta halako gauza sinpleak egiteko edonor da gai. Baina gero zailtasunak etortzen dira: aldagailua kableak, gurpilak zentratzea... Inko da artista. Rallietan-eta ibili da eta mekanika nahiko kontrolatzen du. Bestela, kaleko unibertsitatean ikasitakoak, txikitatik bizikleta zaleak izan baikara.

7 Konponketarako materiala, nondik?

Piezetarako oso hondatuta dauden bizikletak erabiltzen ditugu.

8 Zertara bideratu nahi dituzue?

Iruñeko Ayuda Contenadores gobernuz kanpoko erakundeak (GKE) itsasontzi edukiontzia bete eta Sierra Leona, Siria, Hon-

duras bezalako herrialdeetara bidaltzen dituzte. GKE horrek Sakanan bilketa asko egiten ditu: arropa, eskola materiala...

9 Dagoeneko konpondu dituzue batzuk?

Bai, zortzi edo hamarren bat erabiltzeko prest daude. GKEkoak Sakanara etortzen direnean jaso eta aurreneko bidalketa eginen genuke. Ez dakigu zehazki nora eramanez dituzten, baina lehen aipatutako herrialdeak izanen dira. Baina badakit Afrikako beste leku askotara bidalketak egiten dituztela. Pozik ikusiko ditugu bizikletak hemendik ateratzen, hainbeste bizikletekin lokala txiki gelditzen ari baita.

10 Laguntza behar duzue?

Bai. Ez dugu egun eta ordu zehatzik ezarrita; telefonoz jar-

tzen dugu hitzordua. Ez zaigu bakarka aritzea gustatzen. Nahia go dugu lagunartean etorri, barre egin, denbora tarte bat gus-tura pasatu eta elkartasun hel-buru bat bete. Konpontzen la-guntzeko edo bizikletak emateko 634 911 754 telefono zenbakira hots egin edo mezua bidali de-zala jendeak. Mekanikoak, proba egiten dutenak, muntatzaileak... denetarik behar dugu hemen.

11 Bizikletan ibiltzen zara?

Bai. Ez naiz hainbeste joaten, baina azken urteetan 2.000 kilometro inguru egin ditut urtero. Egia esan Sakana bizikletan ibiltzeko paradisua da. Ataun alderantz joaten naiz, beste batzuetan Lezaun alderantz, Urbasara joatea ere gustatzen zait. Denok bezala, denbora falta beti.



HERRIKO FESTETARAKO BEHAR DITUZUN EUSKARRI GUZTIAK PRESTATUKO DIZKIZUGU

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

